

**BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIAK
EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPEN-TXOSTENA ETA
BALANTZEA (2004-2008 aldiaren amaiera)**

2012

AURKIBIDEA

	<u>Or.</u>
1. Aurkezpena	3
2. Adierazleen Lan Taldea	5
3. Metodologia	6
4. Gomendioen inguruan eginiko jarduerak	8
4.1. Prebentzio arloko gomendioen inguruan egindakoak	8
Bizkaiko Foru Aldundia	8
Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia	17
Beste erakunde batzuk	23
4.2. Arreta arloko gomendioen inguruan egindakoak	27
Gizarte-zerbitzuak hobetzea	27
Datuak eskuratzeko lana hobetzea	37
Profesionalentzako prestakuntza	49
Erakundeen arteko koordinazioa	60
5. Ondorioak	76
1. ERANSKINA. Akronimoen zerrenda	80

1. AURKEZPENA

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak “Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurkako indarkeriaren arloan erakundeen jarduna hobetzeko gomendioak eta proposamenak” dokumentua argitaratu zuen 2009an.

Dokumentu hori lantzearekin bat organoak lehen laurteko aldia bete zuen jardunean (2004-2008). Behatokiko Adierazleen Lan Taldeak 2008an eginiko lanaren emaitza izan zen dokumentua. Izan ere, osoko batzarrak horrela eskatuta gogoeta-prozesu bati ekin zion Lan Talde horrek eta, hain zuzen, prozesu horretan hezurmamitu ziren dokumentuan jasotako gomendioak. Horien guztien helburua da “...*Bizkaian genero-indarkeriaren arloan eragina duten zerbitzuen eta laguntzen eskaintza hobetzea*”. 2008ko abenduaren 15ean Behatokiaren osoko bilkuran aurkeztu zen dokumentua eta, alegazioentzako aldia igaro ondoren, 2009ko apirilaren 24ko osoko bilkuran onartu zen azkenean.

Emakumeen aurkako indarkeria-egoerak prebenitzeko eta egoera horietan laguntzeko 53 gomendio ezarri ziren, gehien-gehienak azken esparru horretara bideratuak eta alderdi hauekin loturikoak: programen kudeaketa, datuak eskuratzea, profesionalak prestatzea eta erakundeen arteko koordinazioa.

Dokumentuaren bi bertsio egin ziren, luzea bata eta horren laburpena, bestea; eta bi euskarri prestatu ziren hedatzeko, formatu elektronikoa eta papera (azken hori laburpenaren bertsiorako baino ez).

2009-2012 epeari begira Behatokiaren jardura zuzentzen duen Lan Planean jasota dago lehen etapan emandako gomendio horien jarraipena egitea eta, jarraipen horren argitan, epe hori itxiko duen beste txosten bat lantzea, lehen dokumentuan aipatutako alderdiak sakontzeko edota beste berri batzuk jorratzeko.

Alde horretatik, 2011ko ekitaldian, Adierazleen Lan Taldeak gogoeta prozesu bati ekin zion, gomendioetan aipatzen diren egoeretan eragiten duten baldintza edo faktoreen inguruan hausnartzeko. Dokumentua argitaratu zen urtea (2009) hartu zen hausnarketa horretarako abiapuntu, nahiz eta kasu batzuetan dokumentua lantzen hasi aurreko urtea hartu erreferentziazat.

Taldeak hainbat sektoretako kideak biltzen ditu, erakunde publikoetako ordezkariak eta genero-indarkeriaren esparruan diharduten elkarteetakoak eta, horrenbestez, horren isla da jarraipeneko txosten hau. Halaxe izan ziren bere garaian emandako gomendioak ere. Dokumentu honetan jasotako hausnarketen oinarrian, nagusiki, bi iturri hauek daude: Lan Taldea osatzen duten pertsonen ezaguera zuzena, batetik, eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloan esku hartzeko neurriak prestatzen edota aplikatzen pertsona horiek berek duten eskarmentua, bestetik.

Puntu horretan, aipatu beharrekoa da erakundeetan aldaketak izan direla gomendioen formulazioari ekin zitzaionetik. Nabarmenena, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren sorrera, 2009an. Ezinbestean, eskumenak berriro formulatu beharra, hasiera batean lan-erritmoak moteltzea eta erakundeen arteko koordinazio-sistema egokitzeko eta doitzeko prozesuei nahitaez ekin beharra ekarri zuen zuzendaritza berriak, eta horrek guztiak eragin nabarmena izan du erakundeen dinamikan. Beste iritzi eta gogoeta batzuk sortu dira gaur egungo testuinguru horretan, eta, besteak beste, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko oinarritzko terminologia bera ere egokitu egin behar izan da. Horrek guztiak jatorrizko testuingurutik kanpo utzi ditu Behatokiak aurreko etapan emandako gomendio batzuk; izan ere, gaur egungo egoera instituzionalaren argitan, bete-beteko esanahirik gabe geratu dira gomendio horiek.

Bestalde, Behatokiak gomendioen formulazioa bukatu zuen aldi berean onartu zen Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, eta, hain zuzen, Lege horren garapeneko alderdi garrantzitsuenetako bat da gizarte-zerbitzuetako euskal sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroa definitzea. Gaur egun zorroaren dekretu-proiektua amaitu gabe dago, eta, horren ondorioz, ondo zehaztu gabe daude ematen diren zerbitzuak, horiek eskuratzeko mekanismoak eta erakunde bakoitzari dagozkion eskumenak. Aipatutako Dekretu horren xede dira zehazteke dauden alderdi horiek guztiak.

Behatokiak bere gomendioak eman zituenean, beraz, erakundeen panorama bestelakoa zen gaur egungoaren aldean eta, horrenbestez, ondorengo orrialdeetan, testuinguru horretan izan diren aldaketei eta hortik etorri diren ondorioei buruzko iritzia baino ez da jasotzen zenbait ataletan. Horiez gain, etorkizunean erakundeen jarduna orientatze aldera Taldeak bereziki zaindu beharrekotzat jotzen dituen zenbait alderdiren gaineko hausnarketak ere jasotzen dira. Nolanahi ere, txosten honen xede ez direnez, alderdi horiei buruzko gogoetak ez dira luze-zabal garatu.

Txosten hau bukatu genuen egun bertsuetan, Eudelek, Emakundek eta Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak EAEn emakume eta gizonen arteko berdintasunerako gida-ordenantza marko bat argitaratu zuten. Hain zuzen, berdintasunerako ordenantza eredu horretan kapitulu espezifiko batean jorratu da emakumeen aurkako indarkeria. Irizpide erkideetan oinarriturik dago atal hori, eta EAEko udalerriekin adostuta; horrenbestez, tokiko esparruan bide horretan izango diren ekimenen gidari izango da ordenantza hori.

2. ADIERAZLEEN LAN TALDEA

Txosten hau lantzen aritu den denboran, honako erakunde eta pertsona ordezkariak izan dira Genero Indarkeriaren Behatokiko Adierazleen Lan Taldeko kide:

Lan Taldearen Koordinazioa:

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila – Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia
Berta Díaz Arbesú andrea – *Emakumearen Sekzioko burua*

Kideak:

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila – Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia
Laguntzailea: Sandra Brizuela Rodríguez andrea – *BFAko gizarte-langilea*

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila – Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia
Cristina Sarduy Gainza andrea – *Genero Politiken idazkari teknikoa*

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi Sustapena Saila
Francisco Aguiriano Miranda (Titularra) – *Informazio Egituren Ataleko burua*
Juan José Duque Murua jauna (ordezkoa) - *Informazio Egituren Ataleko goi-teknikaria*

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila
Marimar Rueda Fernández andrea (Titularra) – *Analisi Arloko burua*
Sorne Etxebarria Arrien andrea (Titularra) – *GIBLZko abokatua*
Begoña Ensunza Campos (ordezkoa) – *GIBLZko teknikaria*

Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea
Raquel Raposo Acevedo (Titularra) – Programak eta Prestakuntza Sailaren arduraduna
Begoña Zugadi Rodrigo andrea (ordezkoa) - *Programak eta Prestakuntza Saileko teknikaria*

Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herrizaingo Saila
Roberto Moreno Álvarez jauna - *Helduen Justizia Zerbitzuko burua*

EUDEL

Ermuko Udala (Titularra): Begoña Fernández Alcalde andrea – *Berdintasuneko teknikaria*
Gernika-Lumoko Udala (Ordezkoa): Ixone Badiola Lekue andrea – *Emakumearen Zerbitzuko teknikari arduraduna*
Laguntzailea: Mireia Espiau Idoiaga andrea – *EUDELeko Berdintasuneko teknikaria*

ARGITAN Emakumearen Zentro Aholku-emailea
Karmele Ozaita Andrés andrea (Titularra) – *Lehendakaria*
Aintzane Riancho Blanco (Ordezkoa) – *Abokatua*

AUZOLAN laguntza psiko-sozialerako modulua
Marta Dolado Galíndez andrea (Titularra) – *Aholkulari juridikoa*
Miren Edurne Fdez. Arias andrea (Ordezkoa) – *Abokatua*

3. METODOLOGIA

Gomendioen jarraipena eta balantzea egiteko lan-prozesuaren hasieran, gomendioen sistematizazioa egin zen, gomendio horien garapenean esku-hartze zuzena duten eragileak identifikatzerakoan zenbateko zehaztasuna duten irizpidetzat hartuta. Erabaki hori hartu zen gomendioen ardura nagusia lortu beharreko helburuak direlako eta ez hainbeste zein den erakunde arduraduna, zein diren garatu beharreko ekintza zehatzak, epeak eta bestelakoak. Formulazio horrek baldintzatu egin du lortutako garapenari buruz egin beharreko balorazioaren hedadura; izan ere, zenbaitetan, ohar soilak baino ez dira, egoeraren ezaugarriei, gertatu diren aldaketei edo hurrengo prozesuetan hobetu beharreko alderdiak identifikatzeko erabilgarriak izan daitezkeen joera batzuei buruzko aipamen orokorrak besterik ez.

Gomendioek aurreikusten duten erantzukizunen zehaztapena zenbatekoa den kontuan hartuta, bi multzo finkatu dira:

1. Gomendio zehatzak: Gomendia betetzerakoan parte-hartzea edo erantzukizuna duten erakundeei eginikoak dira. Emandako 53 gomendiotatik 26 dira (%49,1), eta gehienak Foru Aldundiari edota Behatokiari berari zuzenduak daude.
2. Gomendio orokorrak: Ez dute subjektu partikularrik identifikatzen gomendioaren garapenean, eta, irismenaren arabera, izan daitezke *sektorialak* (administrazioko maila zehatz batera edo jarduera-esparru jakin batera mugatuak) eta *orokorrak* (oro har administrazio osoari edo administrazioko maila bat baino gehiagori zuzenduak).

Sailkapen horretatik abiatuta, dokumentazio-lanak egin ziren eta gomendioen aplikazioari buruzko informazioa biltzeko galdera gidariak finkatu ziren, gomendio horiek zehatzak edo orokorrak ziren kontuan hartuta.

Informazioa jasotzeko bi bide erabili ziren funtsean: batetik, Lan Taldea osatzen duten pertsonekin elkarrizketa pertsonalak (gomendioetan aipatutako arlo edo egoeretan esku hartzen duten eragile baitira kide horiek ordezkaturako erakundeak); eta bestetik, gomendio orokorreari buruz Lan Taldearen osoko bileretan mamitutako iritzi bateratuak. Dokumentu honetan, beraz, Lan Taldeko kideek egindako, jakindako edo interesgarri irizitako ekimen eta jardueri buruzko informazioa jaso da, gomendio jakinen inguruko egoera modu esanguratsuan adierazteko.

Jasotako informazioa tratatu ondoren, zirriborro bat idatzi zen eta 2012ko martxoan aurkeztu zen Lan Taldean. Alegazioentzako epe bat zabaldu zen orduan eta, behin epe hori igarota eta zegozkion aldaketak eginda, 2012ko apirilaren 27an eginiko osoko bilkuran onartu zen Lan Taldeak azken txostena.

BGIBk 2004-2008 epean emandako gomendioen jarraipenerako egin diren jardueren laburpena:

- “Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurkako indarkeriaren arloan erakundeen jarduna hobetzeko gomendioak eta proposamenak” dokumentua hedatzea.
- Gomendioak sistematizatzea, haien jarraipena egiteko, gomendio horiek idaztean jasotako erantzukizunen banaketa aintzat harturik.
- Galdera gidariak prestatzea garapenari buruzko informazioa jasotzeko.
- Dokumentazioa eta informazioa jasotzea, gomendioen garapenean esku hartzen duten Lan Taldeko erakunde kideekin elkarrizketak eginda.
- Jarraipeneko txostenaren lehen zirriborroa idaztea.
- Lan Taldeari aurkeztea eta alegazioen epea zabaltzea.
- Jarraipeneko txostenaren bigarren zirriborroa egokitzea eta aurkeztea.
- “Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak emandako gomendioen jarraipenari eta balantzeari buruzko txostena (2004-2008 epearen amaiera)” onartzea.

4. GOMENDIOEN INGURUAN EGINIKO JARDUERAK

4.1. PREBENTZIO ARLOKO GOMENDIOEN INGURUAN EGINDAKOAK

Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduerarekin loturikoak: 1-4 gomendioak.

1. gomendioa

Bizkaiko Foru Aldundiaren jardueran **genero ikuspegia sartzeko** barneko prozesuetan aurrera egitea –horretarako diseinatutako tresnak ezarri–, foru jokabidearen helburu den emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ezartzearen alde egingo duen baliabide gisa.

2000. urtean Aukera Berdintasunaren eta Genero Politiken Unitatea sortu zuenetik, Bizkaiko Foru Aldundiak sendo jarraitu dio emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko bideari, eta horretarako, hainbat berdintasun-plan landu eta gauzatu ditu data horretatik aurrera.

Txosten honetan aztergai izan den epean, hauxe izan da garapen hori gauzatzeko tresna nagusia: Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Bizkaiko III. Foru Plana (2009-2011)¹, Gobernu Kontseiluak 2009ko urriaren 13an onartua.

III. Plan hori lau ardatzetan egituraturik dago eta horietatik hauxe da lehena (I. Ardatza): genero-ikuspegia erakundean integratzea (generoaren zeharkakotasuna edo *mainstreaming*). Foru Aldundiko sail guztietan eragina duten ekimenak biltzen dira ardatz horretan.

Plana hezurmamitzen duten ekintzen ia % 60 Ardatz horretan kokatzen da, eta horiek abian jartzea da erakundean genero-ikuspegia aintzat hartzeko bidean aurrera egiteko modua².

Erakundean genero-ikuspegia aintzat hartze aldera barne-prozesuak aitzinatze ahalegin horretan bereziki esanguratsua izan da ikuspegi horren egiturazko dimentsioa sendotu izana. Horretarako, egokitu egin da Berdintasunerako Foru Planaren Sail arteko Jarraipen Batzordea³, foru departamentuen koordinaziorako barne organoa. 2008an, garai hartan Berdintasunerako eta Herritarren Eskubideetarako Zuzendaritza zeritzonak⁴, beharrezkotzat jo zuen Batzorde hori berritzea, “*bere egiturak eta edukiak erronka berrietara eta lortu nahi diren helburuetara egokitzea*” xedetzat harturik. “*Legeetan, besteak beste Eusko Legebiltzarrak onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 legean, formalki aitortutako berdintasun eskubidea, benetan ezartzea*” zen erronka eta helburu haien artean behinena.

Egokitze horren ondorioz, hainbat barne-egituraz eratutako sistema antolatu zen foru erakundean, eta horrez gain, hor zegoen arloa kudeatzeko ardura zuen saila, batzorde hauek biltzen zituena:

¹ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Bizkaiko III. Foru Plana. 2009-2011. Honako helbide elektronikoa honetan eskura daiteke: <http://www.bizkaia.net/Home2/Archivos/DPTO3/Temas/Igualdad-EUSK.pdf>

² Plana zenbateraino dagoen ezarrita jakiteko azterketak egiten dira urtero. Horien txostenak eskura izango dira aurki Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusian, esteka honetan: <http://www.bizkaia.net>

³ 548/2000 Foru Agindua, ekainaren 30ekoa, Bizkaian Gizonen eta Emakumeen arteko aukera berdintasunerako Foru Planaren Erakundearen arteko Jarraipen Batzordea arautzen duena (BAO, 144. zk., 2000/07/27).

⁴ Gaur egun “Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia” esaten zaio eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailaren barneko organoa da.

- Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Sail arteko Batzordea⁵, eginkizun hauekin: Foru Plana betetzeko koordinazio-lana egitea, programazio-, segimendu- eta ebaluazio-prozesuak dinamizatzea, eta Sail arteko Talde Teknikoa (batzorde tekniko) bultzatzea.

Eta bi Batzorde Tekniko:

- Sail arteko Talde Tekniko bat, proposamenak, txostenak eta azterlanak landuz laguntza eta aholkularitza tekniko emateko ardurarekin;
- Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Unitateak, Sail bakoitzaren mendekoak, arlo horretako ekintzak dinamizatzeko eta bultzatzeko ardurarekin.

Planean jasotzen ziren zeharkakotasunaren arloko ekintzak abiarazteaz gain, zeharkakotasun helburu horiekin zuzenean uztartzen diren beste jardura batzuk ere gauzatu dira: esate baterako, genero-berdintasuna aintzat hartu da Lurraldeko aurrekontu orokorren prestaketa arautzen duten irizpideetan.

2009an, Foru Agindu bidez⁶, gastu programen adierazleak zehazteko irizpideak ezarri ziren, 2010ean eta hurrengo urteetan aplikatzeko, eta irizpide horiek finkatzerakoan aintzat hartu zen genero-ikuspegia. Hala, 2010ean eta 2011n, Foru Aldundiko sail bakoitzak balioetsi egin du, aipatutako araudiak jasotzen duen ildoari jarraituz, zer eragin izan duten berdintasunaren arloan gauzatu dituzten jarduerak aurrekontua antolatzerakoan:

“Programa askotan –beraz, horien helburu eta ekintzetan ere bai– genero-eragina identifikatzeko zailtasunaz jabetuta, (...), eskakizuna pertsonengan eragin zuzena duten ekintzak identifikatzera mugatuko da. Hala, programen kudeatzaileak generoaren laukitxoa hurrengo kasuetan markatuko du:

- 1. Ekintza soilik emakumeentzat denean (aldi baterako desberdintasunak ezabatzen edo murrizten saiatzen diren ekintza positiboak).*
- 2. Ekintza zuzenean pertsonen zuzentzen zaienean.”*

Generoaren arloan zeharkakotasunaren ildo horri jarraituz egin dira beste hainbat jardura ere epe honetan, nahiz eta Foru Planean jasota ez egon. Hala, erakundearen arloan egin diren jardueren artean⁷, nabarmentzekoa da **generoaren ikuspegia** ikasgai gisa **sartu dela jardura-esparru guztietan erakunde osoko postuetarako prestakuntza-eskaintzaren** barnean (lanorduen barnean, lanpostua zuzen betetzeko jasotzen den prestakuntza). Aurrez, ikasgai horri loturiko prestakuntza-jarduerak ikasketen prestakuntza-eskaintzara mugatzen ziren (administrazio-ikasketei edo sustapenei begira lanorduetatik kanpo jasotzen zen prestakuntza). Horrenbestez, 2010. urteaz geroztik, Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiak (Gizarte Ekintza Saila) eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak (Lehendakaritza Saila) elkarrekin egiten dute lan lanpostuari

⁵ 13/2008 Foru Dekretua, otsailaren 12koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako sailen arteko batzordea arautzen duena. (BAO, 43. zk., 2008/02/29).

⁶ 2140/2009 Foru Agindua, uztailaren 23koa. Horren bidez, gastu programen memoriak idazteko eta helburuak, ekintzak eta adierazleak zehazteko irizpideak ezartzen dira, genero eta gazterien ikuspuntuak kontuan hartuta (BAO, 176. zk., 2009/09/15).

⁷ Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, euskal herri administrazioaren zerbitzuan diharduten langileen prestakuntzarako neurrien garapenarekin loturik (EHAA, 42. zk., 2005/03/02).

begirako prestakuntza-eskaintza hori bideratzen, emakume eta gizonen berdintasunari buruzkoa alegia, zeharkako gaitasuna dela aintzat hartuta. Hala, langile guztiei eskainitako prestakuntza-saioak antolatzen dituzte, arlo bakoitzak aurrez finkatutako prestakuntzaz gain. Hau da, prestakuntza hori plangintzan jasotzen da, baina Bizkaiko Foru Aldundian langile bakoitzak lanposturako urtean gehienez ere jaso ditzakeen prestakuntza-orduak ez dute eraginik generoari buruzko formazio horretan. Adibidez, unitate bakoitzak gehienez ere 30 ordu kudeatu zituen 2011. urtean. Eta bi Zuzendaritzen artean koordinatutako berdintasunari buruzko prestakuntza ez zen ordu horiek mugatzeko izan, guztiz bestela baizik, lanposturako prestakuntza horri gehitzeko. Beraz, prestakuntzari eskainitako gehieneko ordu kopuru hori gainditzeko aukera izan zen.

2. gomendioa

Berdintasunerako Foru Planaren Sail arteko Jarraipen Batzordearekin batera, sail bakoitzak berdintasunezko jokabideak garatzeko batzordearen baitan urtero egiten dituen **programa operatiboetan** emakumeen aurkako indarkeriari lotutako ekintzak sartzeari aztertzea.

Aurreko atalean adierazi dugunez, Berdintasuna Taldea- Sail arteko Talde Teknikoa eta Sail arteko Unitateak dira funtsezko egiturak generoaren ikuspegia erakundearen politiketan ezartzeko. Berdintasunerako Foru Plana lantzeko, sail bakoitzak finkatutako jarduerak ezartzeko eta ebaluazioa egiteko erakundearen barnean egokitu diren guneak dira aipatutako sail arteko talde eta unitate horiek.

Testuinguru horretan, eta generoaren ikuspegia erakundearen laneko alderdietan aintzat hartzeari begira gogoeta sistematikorako gune den aldetik, Berdintasuna Taldea- Sail arteko Talde Teknikoak, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako III. Foru Planean (2009-2011) jasotako programazioa egituratzen duten gainerako ardatzekin⁸ bat etorritz jorratu du emakumeen aurkako indarkeriaren gaia.

Lan horren emaitza da gaur egun lantzen ari den IV. Foru Plana. Laugarren horrek emakumeen aurkako indarkeriarekin lotura duten jardunbideak integratuko ditu foru departamendu bakoitzari bideratutako sortan, bakoitzak dituen eskumenekin koherentzia gordez. Aurreikuspen horrek aldaketa dakar III. Foru Planarekiko; izan ere, hirugarrenak ez zuen indarkeriaren arloko ekintza zehatzik proposatzen sail guztietarako. Egia da, hori horrela izan arren, eskuduntza zehatzik ez zuten sailek hainbat ekimen gauzatu dituztela arlo horretan, baina nolana dela ere, egituratze berriak planteatutako ekintzak betetzea ekarriko du, baliabideak esleitzeko markoa sortuko du eta aukera emango du, Planari buruzko ebaluazioaren emaitzak oinarri hartuta, ekintza horiek hobetze eta doitze aldera irakurketa bat jasotzeko.

⁸ Plana lau ardatzetan egituraturik dago: Mainstreaming, Ahalduntzea, Bateratzea eta Elkarrekiko erantzukizuna eta Emakumeen aurkako indarkeria.

3. gomendioa


Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunerako eta Genero Politikei buruzko 2004-2007 Foru Plana ordezkatzeko duen hurrengo Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunerako eta Genero Politikei buruzko **Foru Planaren** sorkuntzan eta diseinuan emakumeen aurkako indarkeria **ardatzetako** bat izatea.

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Bizkaiko III. Foru Plana (2009-2011)⁹, 2008an landua, mamian bat dator Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako EAeko IV. Planaren jarraibideekin¹⁰; hala, emakumeen aurkako indarkeria lau ardatz estrategikoetako bat da, eta, beraz, Bizkaiko Lurralde Historikoan berdintasuna sustatze aldera foru erakundearen jarduna egituratuko duen lehentasunezko gaietako bat da:

- I. Ardatza. Bizkaiko Foru Aldundian genero-ikuspegia integratzea: genero ikuspegiaren zeharkakotasuna- Mainstreaming.
- II. Ardatza. Emakumeek gizartearen eta politikaren arloan parte-hartzea – Ahalduntzea.
- III. Ardatza. Bateratzea eta Elkarrekiko erantzukizuna.
- IV. Ardatza. Emakumeen aurkako indarkeria.

Foru Aldundiko sail bakoitzak urteko programa operatibo bat egiten du (2009-2011) eta hor zehazten ditu jarduerak, helburuak, aurrekontua eta ebaluazio-sistema.

III. Foru Planaren barnean, **Emakumeen aurkako Indarkeria Ardatzak** 30 jarduera biltzen ditu osotara (jarduera guztien %11,6), Foru Aldundiko hamar sailetatik zazpitan banatuak.



⁹ Ikusi 1. oin-oharra.

¹⁰ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako EAeko IV. Plana. VIII. Legealdiko Jarraibideak (2006-2009). Helbide honetan daude eskueran: http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20010/eu/contenidos/informacion/u72_planes_ant/eu_emakunde/adjuntos/iv_plan_igualdad_eu.pdf

Laburpen-taula. Emakumeen aurkako Indarkeria Ardatzeko ekintzak sailen arabera. III. Foru Plana (2009-2011).

SAILA ¹¹	EAlren arloan ekintzarik badu?	Gaia	Ekintza mota	III. Planeko ekintzak, guztira		EAlrekin loturiko ekintzak		
				K	%	K	%	%, III. Planeko ekintza guztien artean
Ahaldun Nagusiaren kabinetea	Bai	Jazarpen sexistak prebenitzea eta errotik desagerraraztea	-Sentsibilizazioa, informazioa eta dibulgazioa -Baliabideak eta zerbitzuak - Prestakuntza	45	17,4	4	13,3	8,9
Gizarte Ekintza	Bai	Etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen aurrean prebentzioa eta arreta hobetzea	-Baliabideak eta zerbitzuak -Araudia	26	10,1	10	33,3	38,5
Nekazaritza	Bai	Sexismoa errotik desagerraraztea Nekazaritza Sailaren esparruan	-Sentsibilizazioa, informazioa eta dibulgazioa	15	5,8	2	6,7	13,3
Kultura	Bai	Sexismoa errotik desagerraraztea gizarte eta kulturako esparru orotan	-Baliabideak eta zerbitzuak -Sentsibilizazioa, informazioa eta dibulgazioa	42	16,3	5	16,7	11,9
Ogasuna	Ez	-	-	20	7,8	0	0,0	0,0
Ingurumena	Ez	-	-	19	7,4	0	0,0	0,0
Herri Lanak	Bai	Emakumeen segurtasuna eta seguru sentitzeko sentipena hobetzea	-Baliabideak eta zerbitzuak -Ezagutza	13	5,0	2	6,7	15,4
Ekonomia-sustapena	Bai	Lanean jazarpen sexistak prebenitzea eta ezabatzea	-Sentsibilizazioa, informazioa eta dibulgazioa	47	18,2	5	16,7	10,6
BB.MM. eta Herri Administrazioa	Bai	Emakumeen segurtasuna eta seguru sentitzeko sentipena hobetzea	-Sentsibilizazioa, informazioa eta dibulgazioa	20	7,8	2	6,7	10,0
Garraioak eta Hirigintza	Ez	-	-	11	4,3	0	0,0	0,0
BFA, guztira				258	100,0	30	100,0	11,6

¹¹ Bizkaiko Foru Aldundiaren egungo antolaketa eta Berdintasunerako III. Foru Plana onartu zen garaikoa desberdinak dira. Egungoa, Ahaldun Nagusiaren 137/2011 Foru Dekretuak, ekainaren 29koak, arautzen du. Bizkaiko Foru Aldundiaren Sailak, jardun-esparruak eta funtzioak ezartzen ditu dekretu horrek (BAO, 125. zk., 2011/06/30).

Planaren baitan, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan bideratzen diren ekintzen heren bat (%33,3) **Gizarte Ekintza Sailari** dagokio; izan ere, sail horren jarduera-esparruaren xede da arlo hori. Hain zuzen, sail horretako Emakumea eta Familia Zerbitzuak, besteak beste, eginkizun hauek ditu bere eskumenen artean¹²:

- Premiazko arreta behar duten emakumeek (tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituztenak, etab.) zerbitzuak jasotzeko baliabideak indartzea.
- Emakumeen aurkako indarkeria errotik desagerraraztera bideratutako programak sustatzea.
- Familia-zuzenbidearen arloan eta tratu txarrak edota sexu-erasoak gertatu diren kasuetan aholkularitza ematea.
- Zenbait egoeratan dauden emakumeei zuzendutako arreta psikologikoko programak sustatzea eta indartzea.

III. Foru Planean, indarkeriaren arloan jasotako ekintza gehienak bi kategoria hauetan biltzen dira nagusiki: **baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea** (%43,3) eta **sentsibilizazioa, informazioa eta dibulgazioa** (%36,7). Beste arlo edo kategoria hauetan ekintza eta neurri gutxiago proposatzen dira: jakintza sortzea (%10), prestakuntza (%6,7) eta jarraipenerako mekanismoak sortzea eta egokitzea (%3,3). 2009an, 2010ean eta 2011n urteko ebaluazioak egin dira jakiteko Planean jasotako neurriak zenbateraino bete diren. Ebaluazio horien txostenetan zehazten da xehetasun osoz neurri horien garapena¹³.

Aurrez aipatu dugunez, IV. Foru Planak sendotu egingo du Emakumeen aurkako indarkeriari dagokion Ardatza, erakundeko sail guztiei arlo horri loturiko neurri eta ekintza zehatzak proposatuta. Gaur egun lantzen ari dira plan hori.

¹² Bizkaiko Foru Aldundiaren 38/2008 Foru Dekretua, martxoaren 18koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailaren araudi organikoa onartzen duena (BAO, 61. zk., 2008/04/01).

¹³ Ikusi 2. oin-oharra.

4. gomendioa

“Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Foro”an sartutako **emakume elkarte**en ahalmena baloratzea eta indartzea, indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntza sarerako zubi gisa, foro horretako lan dinamikaren esparruan, elkarte horiek hartzaile izango dituzten sentsibilizazio eta informazio ekintzen bidez.

Gomendio horrek nabarmentzen duen lehen alderdiaren harira, “*Emakume elkarte*en ahalmena baloratzea...”, Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiak zabalik dauka elkarte horientzako urteko diru-laguntzen ildo, Foru Dekretu bidez arautua¹⁴. Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzera bideratutako jarduerak eta egitasmoak dituzten emakume elkartei eta irabazi asmorik ez duten elkartei zuzendurik daude diru-laguntza horiek. Diru-laguntzak emateko eta zenbatekoa kalkulatzeko irizpideen artean aintzat hartzen dira emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduerak eta neurriak. Hain zuzen, baremoko bigarren puntuazio altuena ematen zaie jardun eta neurri horiei. Era berean, Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusiko Emakumea eta Familiako Esku-hartzea Zerbitzuak ere gizarte-zerbitzuen prestazioan diru-laguntzen deialdi bat egiten du urtero irabazi asmorik gabeko erakundeei zuzendua¹⁵. Laguntzak zer jardueratara bideratuta dauden aintzat harturik, horiek jaso ditzaketen kolektibo zehatzen artean daude genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen biktima izan diren emakumeak.

Gomendio horretan jasotzen den bigarren alderdiari buruz, Foroa osatzen duten elkartei zuzendurik emakumeen aurkako indarkeriaren gainean antolatutako sentsibilizazio eta informazio arloko ekimenei buruz, alegia, Foru Aldundiko Berdintasunerako Zuzendaritzak azaroaren 25era, Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Egunera, bideratzen du jardun nagusia: hala, EAE osora bideratutako erakunde arteko kanpainaren esparruan garatzen diren jardueretan elkarte horien parte-hartzea sustatzen du Bizkaiko Foru Aldundiak.

Foroak urtero egiten dituen jardueren egitarauan orain arte ez da modu espezifikoa eta sistematikoa jorratu emakumeen aurkako indarkeriaren gaia. 2009 eta 2010 artean zenbait jardun zehatz izan dira gai horri loturik, honako hauek:

- 2009an, Emakume Elkarte VII. Azokaren baitan, “Emakumeak eta gatazka belikoak” hitzaldia izan zen (2009ko maiatzaren 22an), Umoya – Afrika Beltzarekiko Elkartasun Batzordearen eskutik.
- 2010ean, Emakume Elkarte VIII. Azokan, “Emakumeentzako autodefentsa lantegia” izan zen (2010eko maiatzaren 5 eta 7an).

¹⁴ Bizkaiko Foru Aldundiaren 173/2010 Foru Dekretua, abenduaren 29koa. Horren bidez arautu da nola emango zaizkien diru-laguntzak 2011n emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatzeko proiektuak egingo dituzten emakume elkartei eta irabazteko asmorik ez duten erakundeei. Eskueran dago helbide honetan: <http://www.bizkaia.net/home2/Archivos/DPTO3/Temas/Pdf/DF%20ASOM-ENTG%202011.pdf>

¹⁵ Bizkaiko Foru Aldundiaren 158/2010 Foru Dekretua, abenduaren 15koa. Horren bidez, deialdi publikoa onesten da 2011. urtean Gizarte Ekintza Sailak irabazteko asmorik gabeko erakundeei emakumea eta familiari buruzko gaietan jarduteko emango dizkien diru-laguntzetarako. Eskueran dago helbide honetan: http://www.bizkaia.net/lehendakaritza/Bao_bob/2011/01/20110120a013.pdf Otsailaren 8ko 2011/10 Foru Dekretuaren bidez aldatua (BAO, 30. zk., 2011/02/14).

- 2010ean, Foroa osatzen dute elkarteetako kideek “KONTRAINDARKERIAK: Emakumeei eginiko erasoen kontrako praktika artistikoak” erakusketa bisitatzeraz jo zuten, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Koldo Mitxelena Kultur Zentrora¹⁶.

Bestalde, gomendio hori dela eta, nabarmentzekoa da Foru Aldundiko Gizarteratze gaietako Zuzendaritzaren Emakumea eta Familiako Esku-hartzea Zerbitzuak programa pilotu bat diseinatu duela **Bizkaian Bitartekari Sozialen Sare bat** eratzeko eta martxan jartzeko. Bikotearen edo bikotekide ohiaren aldetik indarkeriaren biktima izan diren emakumeak identifikatzeko, haiei informazioa emateko, laguntzeko eta arreta-zerbitzu eta -programetara bideratzeko lanak egitea izango da bitartekari sozial horien funtzioa. Programa horren helburua da emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazten eta tratu txarren aurrean kontzientziazio eta elkartasun sozial handiagoa sustatzen laguntzea. Martxan jartzeko, beharrezkoa da Lurraldeko Emakume Elkarleen laguntza eta konpromisoa, eta horien artean daude Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foroan parte hartzen duten erakundeak ere. Proiektuaren lehen fasean informazioa emateko bilera bat egin da, elkartei programa aurkezteko eta horren berri emateko, haien interesa erakartzeko eta parte hartzeko prest dauden erakundeak identifikatzeko. 2012ko martxoaren 19an izan da bilera hori.

¹⁶ Zentroaren webgunean kontsulta daiteke erakusketari buruzko informazioa: <http://kmk.gipuzkoakultura.net/>

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren jarduerarekin loturikoak: 5-7 gomendioak

5. gomendioa

BGIBren webgunearen bidez, EAEko esparruan emakumearen aurkako indarkeriaren prebentzioari begira **komunikabideei** dagokienez garatutako tresnak hedatzea.

2009. urteaz geroztik, honako artikulua hauek bideratu dira *OVGB/BGIB Buletinera* komunikabideek emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari emandako tratamendua aztergai hartuta:

- 13. zk. (2009ko ekaina), "Kontuan hartu" sekzioa: Congénere Nazioarteko Biltzarra: "Generoaren adierazpena XXI. mendeko publikitatean"¹⁷.
- 16. zk. (2010eko martxoa), "Tresnak" sekzioa: Genero indarkeria nola tratatzen den komunikabideetan¹⁸.
- 20. zk. (2011ko martxoa), "Behatokia" sekzioa: Prebentzio eta arreta arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien eskuliburua¹⁹.
- 23. zk. (2011ko abendua), "Hartu kontuan" sekzioa: Eusko Jaurlaritzako Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak antolatutako Genero-indarkeriari eta komunikabideei buruzko jardunaldien gaineko albistea.

2010ean, *Prebentzio eta arreta arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien eskuliburua* landu eta argitaratu zuen Behatokiak bere webgunean²⁰. Argitalpen horretan, prebentzioari buruzko I. Kapituluaren zehazki, Hezkuntza eta Sentsibilizazioari buruzko atalekin batera, bada hirugarren bat **komunikabideen eta publikitatearen esparruko jarduerak** jasotzen dituena.

Atal horrek arlo horretan garatutako sei proiektu jasotzen zituen, argitalpeneko fitxa-zenbakiaren arabera ordenatuta:

- 16. fitxa. Genero-indarkeriaren adierazpena TVEko albistegietan: Ondorioak (2005). Erakunde arduraduna: RTVE, Irrati eta Telebista Institutu Ofiziala.
- 17. fitxa. Komunikabideetan indarkeria matxista lantzeko eta tratatzeko gomendioak. 2009. Erakunde arduraduna: Kataluniako Generalitatea.
- 18. fitxa. Genero-indarkeriari buruz berri emateko barne araudia edo kodea (2008). Erakunde arduraduna: *Público* egunkaria.
- 19. fitxa. Emakumeen aurkako indarkeria kazetaritza aldetik tratatzeko dekalogoak (2008). Erakunde arduraduna: Argentinako Kazetariak Sarean komunikazio ez sexistaren alde.
- 20. fitxa. Genero-indarkeriaren prebentziorako publikitate-kanpainak egiteko dekalogoak (2006).

¹⁷ Artikuluaren edukirako sarbidea: http://www.bizkaia.net/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/blt13/kontuan.html

¹⁸ Artikuluaren edukirako sarbidea: http://www.bizkaia.net/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/blt16/tresnak.html

¹⁹ Artikuluaren edukirako sarbidea: http://www.bizkaia.net/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/blt20/behatokia.html

²⁰ Helbide honetan kontsulta daiteke dokumentua:

http://www.bizkaia.net/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/pdf/dokumentuak/Manual_Practicass_2010_e.pdf

Erakunde arduraduna: Mujeres Fundazioa.

- 21. fitxa. Genero-indarkeriaren aurkako publizitatea (2008).

Erakunde arduraduna: *Yo Dona* aldizkaria.

Prebentzio eta arreta arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien eskuliburua, 2010 argitalpena jardun horiek ezartzeko eskumena duten erakundeei eta *OVGB/BGIB Buletina* jasotzen duten harpideei banatu zitzairen, eta herritarrei ere zabaldu zitzairen Behatokiaren web-orrialdean argitaratuta.

OVGB/BGIB Buletina hedatzeko, zenbaki bakoitza banaketa-zerrenda zehatzen bidez bidaltzen zaie hainbat pertsonari eta Behatokiaren web-atarian ere argitaratzen da.

6. gomendioa

BGIBren aldizkariaren bidez, EAE mailan, **hezkuntzaren eremuan** emakumearen indarkeriaren prebentzioari buruzko jokabideak, kontsulta materialak, etab. hedatzea.

2009. urteaz geroztik, hezkuntzaren esparruan emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari buruz argitaratu diren artikulua hauek bideratu dira OVGB/BGIB Buletinera:

- 19. zk. (2010eko abendua), "Gaiak" sekzioa: "Berdintasuna eta genero-indarkeriaren prebentzioa nerabezaroan: emaitza nagusiak" ikerketa²¹.
- 21. zk. (2011ko ekaina), "Gaiak" sekzioa: Emakunderen Nahiko programa; berdintasuna, errespetua eta indarkeria eza lantzeko hezkidetza-programa²².

Nahiko programari eskainitako artikuluan, egitasmo horren helburuak, metodologia eta ibilian eginiko urteetan esperientzia horren garapenak izan dituen alderdi nagusiak jorratzen dira. Emakunderen webgunean programaren atari tematikora sarbidea ematen duen loturarekin amaitzen da artikulua.

OVGB/BGIB Buletina hedatzeko, zenbaki bakoitza banaketa-zerrenda zehatzen bidez bidaltzen zaie hainbat pertsonari eta Behatokiaren web-atarian ere argitaratzen da.

Gomendio horri loturik, halaber, Prebentzio eta arreta arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien eskuliburua²³ landu eta argitaratu zuen BGIBk 2010ean, eta argitalpen horretan, prebentzioari buruzko I. Kapituluaren zehazki, **Hezkuntzaren esparruko jarduerak** jaso zituen ataletako batean, Sentsibilizazioari eta Komunikabideei eta publizitateari buruzko atalen aurretik justu.

Atal horrek arlo horretan garatutako zazpi proiektu jasotzen zituen, batzuk EAEko erakundeek zegozkienak, argitalpeneko fitxa-zenbakiaren arabera ordenatuta:

- 1. fitxa. "Elkarrekin hazi: Familia-giroan eta eskolan genero-indarkeriaren prebentziorako gida praktikoa" (2007).
Erakunde arduraduna: Emakumearen Aragoiko Institutua.
- 2. fitxa. "Zuzen eta alderantziz: Giza eskubideetan hezteko materialak: Emakumeen aurkako indarkeria gehiagorik ez". 'Helduen hezkuntzarako jarduera didaktikoak' kapitulua (2007).
Erakunde arduraduna: Amnistia Internazionala.
- 3. fitxa. *Hezkidetza*: "Emakumeen eta nesken aurkako indarkeriaren prebentzioa" (2005).
Erakunde arduraduna: Ikasleen Guraso Elkartearen Espainiako Konfederazioa (CEAPA).
- 4. fitxa. "Maitasun benetakoaren bila: Hiltzen duten maitasunak saihestu" erakusketa. 2009.

²¹ Artikuluaren edukirako sarbidea: http://www.bizkaia.net/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/blt19/gaiak.html

²² Artikuluaren edukirako sarbidea: http://www.bizkaia.net/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/blt21/gaiak.html

²³ Helbide honetan kontsulta daiteke dokumentua:

http://www.bizkaia.net/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/pdf/dokumentuak/Manual_Practicas_2010_e.pdf

Erakunde arduraduna: Kanariar Uharteetako Gobernua.

- 5. fitxa. "Neskentzako gida praktikoa. Erasoen aurrean nola prebenitu eta babestu (2. koaderno)" (2003).

Erakunde arduraduna: Maite Canal argitaletxea

- 6. fitxa. "Horrelakoa naiz ni. Sexismoa eta genero-indarkeria. Gazteentzako prebentzio-gida" eta "Genero-indarkeriaren prebentziorako hezkuntza-gida: zer egosten da gazteen arteko harremanetan?" (2010).

Erakunde arduradunak: Deustu-San Ignazioko Modulu Psikosoziala eta Sortzen Kontsultoria, S. L.

- 7. fitxa. "Beldur Barik: Indarkeria sexistaren aurkako gida neska-mutilentzat" (2009).

Erakunde arduraduna: Berdinsarea, Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea (EUDEL).

Prebentzio eta arreta arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien eskuliburua, 2010 argitalpena jardun horiek ezartzeko eskumena duten erakundeei eta OVGB/BGIB Buletinaren harpideei banatu zitzairen, eta herritarrei ere zabaldu zitzairen Behatokiaren web-orrialdean argitaratuta.

7. gomendioa

Emakumeen aurkako etxeko tratu txarren **prebentzio eta laguntza kontuetako jokabide onei lotutako txostenen eta ikerketen** prestaketa bultzatzea eta BGIren webgunearen bidez horrelako lanak hedatzea.

Behatokiak, sorrerako Dekretuaren arabera dituen eskumenen artean²⁴, hauxe du eginkizunetako bat: **“Beste erakunde batzuekin parte hartzea eta hartu-emanak izatea eta beste administrazio batzuen jardun egokien berri izatea”**. Funtzio hori betetzeko, orain arte bi eskuliburu egin ditu emakumeenganako indarkeriaren aurkako jardun eta esperientziei buruz, azkena 2010ean. Dagokien lan planetan jasota daude bi eskuliburu horiek.

Azken txosten honen edukiaren diseinua aztergai dugun gomendiora egokitzen da, eta, horrenbestez, *Prebentzio eta arreta arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien eskuliburuak*²⁵ bi atal tematiko zabal ditu jarduera-esparru horietako bakoitzari buruz.

I. kapituluan biltzen dira erakunde publikoek eta pribatuek Hezkuntza, Sentsibilizazio eta Komunikabide eta publizitatearen esparruetan martxan jarritako jarduerak; eta II. kapituluan, berriz, Arreta-zerbitzuetan, Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko profesionalen prestakuntzan eta Erakundeen arteko koordinazioan abiatutakoak.

Dokumentua 2010eko azaroaren 26ko saioan aurkeztu zen Behatokiaren osoko bileran.

Dokumentua lantzeko, hainbat fasetan egituraturatutako prozesuari jarraitu zitzaion:

1. Hasteko eta behin, genero-indarkeriaren aurkako borrokarekin loturik prebentzio eta arreta arloan 1992 eta 2010 urteen artean eginiko jarduerari buruzko informazioa bildu zen; prentsa digitalean eta ohiko prentsan argitaratutako informazioa, hain zuzen.
2. Jardunak hautatu ziren.
3. Hautatutako ekimenez zer eragin izan duten jakiteko ahalegina egin zen:
 - erakunde publiko eta pribatu eta elkarten web-atarietan eta bestelako erakundeetan egin zen bilaketa;
 - esperientziak aurrera eramateaz arduratu diren erakundeekin hartu-emanak izan zen telefono bidez eta posta elektronikoaren bidez;
 - galdeketa bat betetzeko eskatu zitzaizen erakunde eta elkarteei, horren bidez informazioa zabaltzeko eta jardun bakoitzak zer eragin izan duen neurtzeko;
 - informazioa tratatu zen;
 - eskuliburua idatzi zen;
 - euskarara itzuli zen;
 - eskuliburua maketatu zen bi hizkuntzetan;

²⁴ Bizkaiko Foru Aldundiaren 53/2003 Foru Dekretua, martxoaren 18koa (BAO, 63. zk., 2003/04/01). Helbide honetan dago eskuragarri: http://www.bizkaia.net/Gizartekintza/Genero_indarkeria/pdf/decreto_foral_53_2003.pdf

²⁵ Ikusi 23. oin-oharra.

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia

- Behatokiaren webgunean argitaratu zen.
- posta elektronikoa bat bidali zitzaion parte hartu zuten erakundeei eta mezu horren bidez jakinarazi zitzaion eskuliburua argitara eman zela Behatokiaren webgunean.

Dokumentua Behatokiaren webgunean dago eskura, kontsultatzeko eta deskargatzeko.

Beste erakunde batzuen jarduerarekin lotutakoak: 8. gomendioa.

8. gomendioa

Indarkeriaren biktima diren emakumeei **laguntzeko sareen** sentsibilizazioa bilatzen duten ekintzak (kanpaina dibulgatzaileak, etab.) burutzea, mota horretako egoerak ezagututa, holako emakumeei laguntza eraikitzailea eman ahal diezaieten. **Landa** eremuan horrelako neurriek garrantzi oso handia izan dezakete.

Aurrez aipatu dugun eran, **Bizkaiko Lurralde Historikoaren esparruan**, gomendio horren xedearekin loturiko programa bat ezartzen egin du lan Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak 2011. urtean: Bitartekari Sozialen Sare bat sortzen, hain zuzen, tratu txarren biktima izan diren emakumeak identifikatzeko eta haiei orientabidea emateko.

Erakundeen arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak 2002ko azaroan landutako Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako Segurtasun Planean (2002-2004)²⁶ jasotako neurri baten harira jarri zen martxan programa hori. Hain zuzen, halaxe dio aipatutako plan horrek Babes Sozialeko esku-hartzearen esparruari dagokion atalean:

4.3. neurria

Prestakuntza egokia izan eta etxeko tratu txarren biktima diren emakumeei babesa eman, lagundu eta jarraipena egingo dieten bitartekari sozialen sare baten eraketa sustatzea eta zeregin horretan laguntzea.

Erakunde partaideak:

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saila.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

Foru Aldundiak.

Eudel.

Legelarien Euskal Kontseilua.

Euskal Kontseilu Medikoa.

Emakunde.

Neurri hori abiaraztearekin, Bizkaiko Foru Aldundiak sentsibilizazio arloko hainbat ekimen bultzatuko ditu Lurraldeko emakume elkarteei zuzenduak. Helburua da boluntarioak (emakumeak) biltzea indarkeriaren biktima diren emakumeei babesa eta laguntza emateko lanak egiteko. Programa horren eskutik, boluntarioek prestakuntza espezifikoa jasoko dute eginkizun horiek zorrotz bete ahal izateko. Halaber, behin lanean hasten direlarik, profesionalen talde bat izango dute ondoan, haien jarraipena egiten eta laguntzen; izan ere, horretarako hainbat neurri ezarri ditu egitasmoak.

²⁶ Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako segurtasun-plana (2002-2004). Erakundeen arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea. Eskueran dago helbide honetan: http://www.emakunde.euskadi.net/u72-preven/es/contenidos/informacion/viol_coordinacion/es_emakunde/adjuntos/plan_de_seguridad_es.pdf

Programa pilotua da, eta 2012 eta 2013an izango da indarrean. Jasotako emaitzen ebaluazioa aintzat harturik, aukera izango da egitasmoa Bizkaiko Lurralde Historiko osora zabaltzeko.

Gomendio horren harira, Foru Aldundiaren ekimen horrez gain aipatzekoa da ARGITAN Emakumearen Zentro Aholku-emaileak (Behatokia osatzen duten elkarteetako bat da) eginiko lana; inguruko emakume elkarteei emakumeen aurkako indarkeriaren gaian sentsibilizatzeko eta, ahalegin horren eskutik, gizarte-mobilizazioetako jardueretan haien parte-hartzea bideratzeko eginiko lana, hain zuzen.

Badira 15 urte ARGITANek urtero kanpaina bat bultzatzen duela azaroaren 25aren inguruan, Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Egunaren inguruan, eta kanpaina horretan, Ezkerraldeko (Alonsotegi, Barakaldo, Portugalete, Sestao, Santurtzi) eta Meatzaldeko (Abanto eta Abanto Zierbena, Muskiz, Ortuella, Trapagaran) udalerrietako emakume elkarten parte hartzea biltzen du. Udalerrri horien artean, batzuk landa eremuak dira edo eremu horietako herrien ezaugarriak dituzte (biztanle gutxi, gizarte-kontrola, biztanleriaren zahartzea, etab.) eta horrek zaildu egiten du indarkeria egoerei aurre egitea.

Jarduera horren baitan, hauek dira ekintza zehatzak:

1. **Gogoetarako gune bateratu bat irekitzea eta sendotzea.** Urtero, kanpaina hasteko, elkarte partaideek hainbat topaketa egiten dituzte, aipatutako udalerrietan emakumeen aurkako indarkeria zertan den aztertzeko. Erakunde publikoek emandako datuak aurkezten eta aztertzen dira: indarkeriaren eraginez zenbat emakume artatu diren eta zenbat baliabide dauden eskura. Eta informazio hori osatzeko, elkarte partaideek hainbat datu gehitzen dituzte, beren udalerrietan hauteman dituzten kasuei buruz. Bateratze horren bidez, inguruan emakumeen aurkako indarkeriaren egoera zein den balioesten da eta hautemandako beharrezanean buruz gogoeta egiten da.
2. **Martxa publikoa:** Jarduera horrek jarraipena ematen dio aurreko prozesuari; izan ere, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan egiten den gogoeta eta hausnarketaren ondoren, elkarte partaideek **Agiri** bat adosten eta sinatzen dute. Agiri horretan, egoerari buruzko daturik esanguratsuenak laburtzen dituzte, hautemandako beharrezanak salatzen dituzte eta martxa publiko baterako deialdia egiten dute. Modu sinbolikoan, Barakaldo eta Sestao udalerririk zeharkatzen ditu martxa horrek.

Hala, ARGITANek bultzatutako jarduera horren eskutik, alde batetik, *sentsibilizatu egiten dira* emakumeei *laguntzen dieten taldeak* (elkarteak), eta, horrez gainera, aukera ematen zaie elkarte horiei, elkarrekin gauzatzen duten herritarren mugimendu horren eskutik, *gizartea sentsibilizatzeko ahalegin horretan eragile izateko*.

2010ean, hauxe izan zen martxaren goiburua: **“2010 arrazoi indarkeria sexistaren aurka”**. Kanpainaren hedapena bermatzeko, berriz, 42.000 liburuxka eta 600 kartel argitaratu ziren, inguruko hainbat lekutan banatzeko.

Emakume elkarte hauek hartu zuten parte ekimenaren antolaketan eta adostu zuten Agiria:

UDALERRIA / ERAGIN-EREMUA	ERAKUNDEA
Abanto eta Abanto Zierbena	EMELKA de Las Carreras Emakume Elkarte Sanfuentes Emakume Elkarte Emakumeen Gallartako Kultur Elkarte
Barakaldo	ARGITAN Emakumearen Zentro Aholku-emailea Errontegiko Mendi Aldeko Alaiak Emakume Elkarte Emakumearen Sustapenerako Zentroa
Bilbo eta BLHko beste udalerrri batzuk	BAGABILTZA Fundazioa
Muskiz	Emakumeen Muskizko Kultur Elkarte
Ortuella	Emakumeen Ortuellako Kultur Elkarte
Portugalete	ANDERE BIDATZ Talde Feminista LAS AMIGAS Emakumeen Kultur Elkarte Emakumearen Sustapenerako Zentroa
Santurtzi	Emakumearen Mamarigako Kultur Zentroa Emakumearen Sustapenerako Zentroa
Sestao	NEBA-NEBA Emakume Elkarte Emakumearen Sustapenerako Zentroa
Trapagaran	AMARIS Emakume Taldea
Zierbena	Emakumeen Zierbenako Kultur Elkarte

Aipatzekoa da Barakaldo eta Sestaoko udalerrietan, urtero martxa egiten den tokian, **Bizkaiko biztanleen %11,2** bizi dela, 128.545 biztanle guztira. Martxa antolatu ohi duten elkarten estimazioen arabera, 2010ean mila bat pertsonak hartu zuten parte bi herrien arteko ibilbidean.

Gomendio horren garapenarekin loturiko jarduera gehiago ere izan dira: **EAE mailan**, 2010 eta 2011n, Herrizaingo Saileko Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Immigrazio Zuzendaritzak prebentzio eta sentsibilizazio arloko bi kanpaina egin dituzte elkarrekin genero-indarkeriaren inguruan: “Kontrola, beldurra eragitea, isolatzea: hori ere genero-indarkeria da. Seinaleak sumatuz gero, aurre egin!”, immigranteen kolektiboari zuzendua; eta bestea, “Zerbitzari izango nintzela esan zidaten... Emakumeak eta neskak sexu-esplotaziorako salerosteak itxaropen asko akabatzen du”.

Kanpaina horietarako informazio-liburuxka bana landu da egitasmoen berri hedatzeko: “Seinaleak sumatuz gero, aurre egin!” eta “Agindua” Emakumeak salerosteari buruzko eskuliburua. Bi-biak eskuragarri daude GIBLZren webgunean, kontsultatzeko eta deskargatzeko²⁷.

Era berean, Zuzendaritza horrek eta “Calala Emakumeen Fondoa” elkarteak, biek elkarrekin, informazio- eta aholkularitza-zerbitzua martxan jartzeko diru-laguntza eman dute. Etxeko zerbitzuan lan egin eta sexu-jazarpena jasaten duten emakume etorkinei zuzendurik dago egitasmo hori. “Con

²⁷ <http://www.interior.ejgv.euskadi.net/r42-423/eu>

Vos” (Zurekin) zerbitzu horrek banakako arreta eskaintzen du, aurrez aurre edo telefono bidez, doaneko 900 82 88 90 telefono-zenbakian. “Sexu-erasoak: nola bizi diren, nola ulertzen diren eta nolako arreta ematen zaien EAEn”²⁸ ikerketak utzitako emaitzen analisiak eraginda batez ere jarri zen martxan baliabide hori. EAE osoko hainbat elkartek hartu zuten parte ikerketa hartan informatzaile gisa. Baliabidea 2012ko martxoaren 9an aurkeztu zuten Sortzen aholkularitzak, Mujeres con Voz elkarteak eta Emakume Etorkinen Getxoko Elkarteak (AMMIG).

²⁸ Honako helbide elektroniko honetan eskura daiteke: http://www.interior.ejgv.euskadi.net/r42-avvg001/eu/contenidos/informacion/avvg_informes/eu_informes/adjuntos/Sexu%20erasoak_.pdf

4.2. ARRETA ARLOKO GOMENDIOAK

4.2.1. ARRETA ARLOKO GIZARTE-ZERBITZUAK HOBETZEA

Programak kudeatzeko egiturekin loturikoak: 9-10 gomendioak

9. gomendioa

Bizkaian bizi diren emakume guztiei haiek erabiltzea ahalbidetuko dien **lurraldeko babes baliabideetako sarea eraikitzea.**

2011. urtean, Harrerako Baliabideei buruzko Lan Talde bat jarri zuten martxan EAEn. Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeko²⁹ Erakunde arteko Talde Teknikoak³⁰ urte horretarako onartutako Lan planaren barruan ekin zion bideari harrerako baliabideei buruzko talde horrek. Harrerako baliabideei buruzko lan talde bat sortzeko proposamena Jarraipen Batzordera eraman zuen Talde Teknikoak eta organo horrek 2011ko maiatzaren 2ko bileran onartu zuen.

Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundeak gidatu eta koordinatutako Lan talde hori sortzeak eta martxan jartzeak bi xede hauek ditu funtsean: emakume biktimentzako harrera-baliabideei dagokienez gizarte-zerbitzuen esparruan esku-hartzeko zer beharizan dauden aztertzea eta Jarraipen Batzordeari lan-proposamen teknikoak egitea³¹.

Taldearen egitekoa da EAEn dauden baliabideei dagokienez zer-nolako erantzuna ematen den ikustea, baliabide horiek optimizatzeko lan-prozedurak aztertzea eta baliabide horiek biktimen arazoetara zenbateraino dauden egokituta egiaztatzea. Lan horren guztiaren xedea da hobetzeko proposamenak egitea, harrera ahalik eta hoberena eskaintzeko, baliabideak optimizatze aldera EAEn lurralde eta udalerrien arteko prozedura formalizatuak sortzea eta gorabehera edo arazo erantsiak dituzten biktimek izan ditzaketen harrera-beharrizanei erantzuna ematea. Hain zuzen, hauek dira, besteren artean, Talde horren helburuak: beste administrazio bateko harrera-baliabideak erabili ahal izateko erakundeen arteko koordinazio-prozedura formal bat ezartzea, arazo erantsiak (gehienbat buru-osasuna edota droga-mendekotasunak) dituzten emakumeei harrera ematea eta datuak biltzerakoan, eroldan eta abar harrerako baliabideen anonimotua ziurtatuko duten neurriak hartzea.

²⁹ Hauek dira talde tekniko horretako kideak: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia; EAeko Auzitegi Nagusiko Fiskaltza; Arartekoa; Eusko Jaurlaritzako sail hauek: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa, Justizia eta Herri Administrazioa, Etxebizitza, Herri Lanak eta Garraioa, Enplegu eta Gizarte Gaiak, eta Osasuna eta Kontsumoa; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak; EUDEL; Legelarien Euskal Elkargoa; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Medikuen Elkargoa.

³⁰ Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei laguntzeko Erakundeen arteko II. Hitzarmenaren jarraipen-txostena eta ebaluazioa. Eskueran dago helbide honetan: http://www.emakunde.euskadi.net/u72-preven/es/contenidos/informacion/viol_coordinacion/eu_emakunde/adjuntos/info_sgto_2010_eu.pdf

³¹ Eusko Legebiltzarreko dokumentazioan: <http://www.parlamento.euskadi.net/rud/09/00/021968.pdf>; Emakundeko 2011 memoria: <http://www.emakunde.euskadi.net>

Erakunde hauetako teknikariek osatzen dute taldea:

- Eusko Jaurlaritza:
 - Emakunde.
 - Herrizaingo Saileko Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza.
 - Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.
- Arabako Foru Aldundia
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Eudel (Euskal Udalen Elkarte)
- Abanto Zierbenako Udala (BLH)
- Barakaldoko Udala (BLH)
- Bilboko Udala (BLH)
- Donostiako Udala (GLH)
- Gasteizko Udala (ALH)

2011. urtean, EAEn dauden Harrerako Baliabideen Mapa lantzen jardun du Talde horrek eta, lan horretan, zehaztasun handiagoz jaso du erabiltzaileen profilarren berri, nazionalitateari erreparatuta eta tratu txarren egoerei gehitutako arazorik baden ala ez aintzat hartuta (baliabidearen erabilera azkartzen baitute arazo horiek), eta, era berean, EAEn harrera-baliabideak dituzten erakundeen artean **erabiltzaileen bideratze-fluxuak** zer-nolakoak eta zenbatekoak diren sakondu du.

Martxan jarri zenetik, laneko bilera hauek egin ditu Taldeak, 2011. urtean:

- 2011ko ekainaren 3a (eratzeko bilera)
- 2011ko irailaren 9a
- 2011ko urriaren 21a
- 2011ko abenduaren 16a

Bestalde, Txosten honen aurkezpenean jaso den heinean, harrerako baliabideak erabiltzeko lankidetzaz- edo koordinazio-hitzarmenak ezartzeko aurrerapausorik emango bada, beharrezkoa da eskumenen esparrua, sarbideak, etab. argitzea. Alderdi horiek guztiak Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren Dekretuak –Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legetik eratorritako dekretuak– zehaztuko ditu, baina gaur egun oraindik ere lantzen ari dira dekretu hori.

10. gomendioa

Bizkaiko Foru Aldundiaren **laguntza psikologikoko** zerbitzua **deszentralizatzea** hartara iritea errazagoa izateko eta joan-etorriek daukaten disuasio-ondorioagatik biktimak laguntza zirkuitutik ateratzea saihesteko.

Programa aldetik, Gizarte Ekintza Sailaren 2008-2011 Plan Estrategikoaren barnean³² honako hau aurreikusten da helburuen artean: “*Laguntza Psikologikorako Zerbitzua deszentralizatzea*”, horretarako “*aurrekontuen ekitaldi bakoitzean eskualdeko zerbitzu bat zabaldua*” (2.6.3. jarduna, 49. or.). Halaber, Emakumeen aurkako Indarkeria Ardatzaren barnean, Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako III. Foru Planak³³, 2009ko urrian argitaratutakoak, barnean biltzen du “*Laguntza Psikologikorako Zerbitzua mantentzea eta gerturatzea, horretarako eskualdeko zerbitzuak sortuta*” (V1.1.7 jarduna, 85. or.).

Programa deszentralizatzekeo prozesuarekin jarraitze aldera³⁴, 2009ko irailaren 30ean lankidetzahitzarmena izenpetu zuten Bizkaiko Foru Aldundiak eta Zallako Udalak, herri horretan Laguntza Psikologikoko Zerbitzua emateko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei eta hain zuzen Enkarterrietako Mankomunitatean³⁵ eta Balmasedako udalerrian bizi direnei. 2009ko maiatzaren 19an jarri zuten martxan zerbitzua eta gaur egun astean behin ematen du arreta, astean 7 ordu gehienez ere, dagoen eskakizunaren arabera.

2009an, halaber, Bermeoko Udaleko Osasun eta Ongizate Sozialeko Udal Patronatuak jakinarazpen bat helarazi zuen foru erakundera, udalerrri horretan Laguntza Psikologikoko programa ematea eskatzeko. Orduko hartan Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Emakumea eta Familia Zerbitzua zenak proposamena aztertu eta zerbitzu horren aldeko iritzia eman zuen. Gaur egun, ordea, oraindik ez da erabat gauzatu deszentralizazio hori.

³² Helbide honetan eskura daiteke dokumentua:

http://www.bizkaia.net/home2/Archivos/DPTO3/Temas/Pdf/Plan%20estrategiko_eusk_130608.pdf

³³ Ikusi 1. oin-oharra.

³⁴ 2006. urteaz geroztik zerbitzua deszentralizatuta ematen da Markina-Xemeinen, Lea-Artibaiko mankomunitatearen lokaletan. Mankomunitatea eratzen duten herriei (Amoroto, Berriatua, Etxebarria, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Ondarroa, Ziortza-Bolibar) eta Aulesti eta Munitibarri ematen die zerbitzu.

³⁵ Udalerri hauek osatzen dute mankomunitatea: Artzentales, Karrantza Harana, Galdames, Gordexola, Güeñes, Lanestosa, Sopuerta, Turtzioz eta Zalla.

Arreta-zerbitzuekin loturikoak: 11-15 gomendioak

11. gomendia

Ahalik eta lasterren, etxeko tratu txarren biktima izan diren eta **era askotako gizarte arazoei lotutako premia bereziak** dauzkaten emakumeentzako berreskurapen eta gizarteratze zentroa diseinatzeari, sortzeari eta abiarazteari heltzea, etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako babes baliabideak arautzen dituen irailaren 11ko 148/2007 Dekretuan jaso legez (2. artikulua, 2. puntua).

Baliabideak hobetzeko egin diren hainbat azterketak eta programak nabarmendu dute behar-beharrezkoa dela EAEn baliabide espezializatu bat izatea tratu txarrak jasaten dituzten edo bestelako arazoak (buruko gaixotasunak, toxikomaniak...) dituzten emakumeen harrera-beharrei erantzuteko.

Gomendio horren mamiak Ettxeko tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako harrera-baliabideak arautzen dituen irailaren 11ko 148/2007 Dekretuaren 2. artikulua aipatzen du zehazki. Artikulu horretan oinarritzen da interes hori eta honela xedatzen da:

“2.– 1. idatz-zatian aurreikusitako harrera-baliabideen sorta eta sarea osatzeko, etxeko eremuan tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak sendatzeko eta gizarteratzeko zentro bat modu esperimentalean abian jartzea aurreikusten da. Zentro hori askotariko gizarte-problematikari lotutako premia bereziak (babes-maila eta espezializazio-maila handia eskatzen dutenak) dituzten emakumeei eta haien kargu dauden senitartekoei zuzenduta egongo da, eta intentsitate eta espezializazio handiko gizarte-babeseko neurriak aplikatuko ditu. Intentsitate handiko zentro hori sortzeko ardura Eusko Jaurlaritzari dagokio, 8.2 artikuluan jasotako baldintzetan.”

2009an **ekin zitzaion modu esperimentalean** etxean tratu txarren biktimak izan eta adikzio erantsiak dituzten emakumeei osatzen eta gizarteratzen laguntzeko baliabide bat **diseinatzeari**, aipatutako Dekretuak adierazitakoari jarraituz. Hainbat arrazoi zirela medio, baliabidea ez zen azkenean martxan jarri eta gaur egun **oraindik ere hutsunea** dago EAEn harreraren arloan indarrean diren baliabideen mapan, falta baita arazo hori duten emakumeei erantzun espezializatua emateko tresna bat.

2011. urtean, Harrerako Baliabideei buruzko Lan Taldea martxan jarri zenean, aurreikusi zen gai horri heltzea; izan ere Talde hori ezartzeko helburuetako bat da emakume biktimentzako harrera-baliabideak direla-eta, gizarte-zerbitzuetan esku hartzeko zer beharrian dauden aztertzea eta Jarraipen Batzordean lan-proposamen teknikoak planteatzea. Txostenaren aurreko ataletan aipatu dugunez, Erakundeen arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeko Erakunde arteko Talde Teknikoak³⁶ 2011. urte horretarako onartutako lan planaren baitan jarri zen martxan Harrerako Baliabideei buruzko Lan Taldea, Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundeak koordinatuta. Talde horren helburuen artean aipatzen da, besteak beste, **arazo edo baldintza erantsiak** (buruko

³⁶ Ikusi txosten honetan 9. gomendioari buruz idatzitako atala (27-28. or.).

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia

osasuna eta droga-mendekotasunak, batez ere) **dituzten biktimei harrera emateko beharra**. 2011. urtean Talde horrek hiru lurralde historikoetako harrera-baliabideen mapa bat egiten jardun du, eta azterketa horretan aintzat hartu ditu arazo erantsiak dituzten emakume biktimen egoera eta haiekin esku-hartzeko beharrizanak.

12. gomendioa

Talde berezien **baliabideetarako heltze eta erabilera diferentziala aztertuko duten ikerketak egitea**, desbideratzeari dagokionez dauden balizko joerak ere ikertuz, eta definitutako taldeek egiten duten erabilera bereizia azalduz.

Lan Taldea eratzen duten erakundeek ez dute ildo horretan inolako azterlanik egin eta beste erakundeek eginiko ikerketen berririk ere ez dugu.

13. gomendioa

Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako **laguntza zerbitzuen iraunkortasuna eta egonkortasuna bermatzea**, horretarako behar diren baliabide materialez eta giza baliabidez hornituz.

2008an “*Gomendioak...*” dokumentua landu zenetik, Behatokiak jakin eta argitaratu dituen datuen arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoan, udalerriek eta zerbitzu-mankomunitateek, oro har, mantendu edo ugaritu egin dituzte, gomendio horren xede diren zerbitzuei dagokienez, indarkeria-egoerak jasaten dituzten emakumeei laguntzeko eskaintzen dituzten baliabideak.

Harrerako baliabideei dagokienez, 2008 eta 2011ko lehen sei hilekoaren artean hiru erakundek (Amorebieta-Etxano, Durango eta Abanto-Zierbenako Udalek) harrerako pisuak jarri dituzte martxan lehen aldiz, eta beste bik (Barakaldoko eta Bilboko Udalek) berregituratu eta zabaldu egin dute eskaintza. Horrenbestez, beste 30 plaza sortu dira Bizkaian. Epe horretan ez da baliabide bakar bat ere itxi.

Aholkularitza juridikoaren arloan, 2008 eta 2011 artean, hiru erakundek (Portugaleta, Sestao eta Ugao-Miraballesko Udalek) gehitu dute beren zerbitzuen zorroan prestazio hori eta gaurdaino mantendu dute, eta beste udalerrri batek (Balmaseda) bertan behera utzi du arlo horretan eskaintzen zuen zerbitzua. Halaber, 2008ko martxoan, Trapagarango Udalak aholkularitza juridikoko baliabide bat jarri zuen martxan, eta urtebete pasatxoan eutsi zion zerbitzuari, 2009ko maiatzera arte.

Laguntza psikologikoko zerbitzuen eskaintzari dagokionez, 2008 eta 2011 arteko epean, bi erakundek (Sestaoko Udalak eta Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitateak) jarri dituzte martxan beren baliabideak, eta beste erakunde batek (Urduñako Udalak) eten egin du zerbitzua.

Erreferentziazko epea zabalduz gero, laguntzeko baliabideak dituzten erakundeen kopurua nabarmen handitu da azken urteotan: 2004 eta 2011 artean, %50 ugaritu dira harrerako baliabideak dituzten erakundeak (hiru gehiago), %44,5 aholkularitza juridikoko zerbitzuak eskaintzen dituztenak (zortzi erakunde gehiago) eta %70 laguntza psikologikoko zerbitzua eskaintzen dutenak (zazpi erakunde gehiago).

Bizkaiko Lurralde Historikoan laguntzako baliabideak dituzten erakunde (udalerrri/mankomunitate) kopuruaren bilakaera 2004-2011.

BALIABIDE MOTA	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Harrera	8	8	8	9	10	11	11	12
Aholkularitza juridikoa	18	20	24	24	26	26	26	26
Arreta psikologikoa	10	14	16	16	16	16	16	17

Iturria: Geuk egina, BLHko udalerrien eta mankomunitateen datuekin.

Alabaina, zerbitzuaren erabilerari dagokionez, **erabilera-orduen kopurua** aintzat hartuta, oso agerikoa da erakunde batzuen eta besteen arteko **aldea**. Aholkularitza juridikoko programei dagokienez, 2010. urtean, hilean 26 ordu eskaini dira batez beste (sei ordu eta erdi astean), baina kasu gehienetan (erakundeen %80), zerbitzuek hilean 20 orduetik beherako dedikazioa dute. Arreta psikologikoko baliabideen kasuan, berriz, zerbitzu horien eskaintza, batez beste, hilean ia 60 ordukoa, alde nabarmenarekin erakunde batetik bestera: hilean 12 ordu (astean hiru ordu) gutxien eskaintzen duenak eta hilean 140 ordu (astean 35) gehien eskaintzen duenak. Indarkeria-arazoak izan eta baliabide horiek erabiltzen dituzten emakumeen **eskarian** ere **alde handiak** daude erakunde batzuen eta besteen artean. Alde horretatik, funtsezkoa da zerbitzu hori ematen duten profesionalak **gaitzea**, prestakuntza horren bidez emakumeen aurkako indarkeria-kasuak **identifikatu** eta erantzun eraginkorra eman ahal izan dezaten.

14. gomendia

Indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko baliabideen eta prozeduren **hedapen kanpainen eraginkortasuna ebaluatzea**, herritarrengan orokorrean eta biktimengan euren daukaten eragina ezagutzeko; horretarako, publizitate kanpainen plangintzan haien ebaluazioa ere sartu beharko da.

Aurki, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak Genero-indarkeriaren aurkako I. Jarduera Planaren Ebaluazio Azterketa egingo du, eta hor jasoko da genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen inguruan egindako **Hedapen-kanpainen eta Eskuliburuaren eraginari buruzko balorazioa**. Kanpaina eta eskuliburu horien artean daude prebentziorako eta herritarrek genero-indarkeriaren fenomenoari buruz sentibilizatzeko egindakoak, emakume biktimei eskainitako baliabideei buruzkoak eta horiek eskuratzeko bideei buruzkoak.

15. gomendioa

Erabiltzaileen eta zerbitzua ematen duten profesionalen **asetze maila jakiteko** bideak ezartzea, **tresnen eta prozeduren homogeneizatzearen ikuspegitik**.

Gomendio horren harira, Lan Taldeak jakin duenez behintzat, Bizkaian eta EAEn ez da inolako ekimenik edo jarduerarik abiarazi erabiltzaileen eta haien eskabideak bideratzen dituzten profesionalen asetze maila jakite aldera **tresnak eta prozedurak bateratzeko**.

4.2.2. DATUAK ESKURATZEKO LANA HOBETZEA

Kontzeptuekin, datuak erregistratzeko ohiturarekin eta tresna erkideak aintzat hartzearekin loturikoak: 16-21 gomendioak.

16. gomendioa EAEko Etxeko Tratu Txarren eta Sexu Erasoen Biktima diren Emakumeei Laguntzeko Erakundeen arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak adostutako “Emakumeen aurkako indarkeria. Terminologiari buruzko proposamenak” agiria gehiago zabaltzea .
17. gomendioa Aholkurako bidea ezartzea gizarte zerbitzuetako profesionalak EAEko Etxeko Tratu Txarren eta Sexu Erasoen Biktima diren Emakumeei Laguntzeko Erakundeen arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak adostutako “Emakumeen aurkako indarkeria. Terminologiari buruzko proposamenak” agiriaren erabilera praktikotik eratorritako interpretazio zalantzak eraman eta argitu ahal izateko.
18. gomendioa “Emakumeen aurkako indarkeria. Terminologiari buruzko proposamenak” agiriaren edukia aberastea, adibide praktikokoak sartuz –egindako galderetatik eta agertutako zalantzetatik atera litezke-, emakumeen aurkako indarkeria kasuak sailkatzeko eta zenbatzeko lana errazteko.

Gomendio horien garapenarekin loturiko jarduerak

Lehenik eta behin, aipatzekoa da gomendio horiek zehazten diren dokumentua 2005ean onartu zuela Sexu-erasoak eta etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko Akordioaren Jarraipen Batzordeak³⁷, *“terminologia aldetik dagoen eztabaidan ekarpena egiteko eta Hitzarmenean parte hartzen duten erakundeek emakumeen aurkako indarkeriaren arloan zer termino erabili behar duten gutxieneko adostasuna lortzeko”*³⁸. Horrenbestez, **Hitzarmen hori sinatu zuten erakundeek EAEn adostutako terminologia da.**

Behatokiak, 2008an landu eta 2009an argitaratutako gomendioen artean biltzen ditu aipatutako dokumentu horri buruzkoak, *hedapenarekin, aplikazio praktikoarekin eta edukia* hobetzearekin zerikusia duten gaitan. Datuak jasotzeko prozesuetan, Behatokiak Lurraldeko udalerriekin eta mankomunitateekin izan duen interakzioaren emaitza izan dira gomendio horiek (terminologiari buruzko proposamena onartu zenetik erreferentziatzeko esparrua izan da eta horixe erabili da zerbitzu publikoek emakumeen aurkako indarkeriari buruz erregistratutako datuak jakiteko). Halaber, datuak jasotzeko prozesu horien emaitzek erakutsi dute, itxura batean, proposamena modu partzialean eta sektorialean erabiltzen zela, eta hortik ere etorri dira aipatutako gomendioak. *Datuak eskuratzeko lana hobetzea* deritzon kapituluan jasotzen dira gomendio horiek; izan ere, ezagun zen Proposamenean jasotako *terminoak* interpretatzerakoan halako ezagutza falta eta esanahi ez-osoan erabilera, eta horrek zaildu egiten zuen udalerrri eta mankomunitate batzuetatik eta besteetatik zetozen datuak bateratzea.

³⁷ Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei laguntzeko Erakundeen arteko II. Hitzarmena. Honako helbide elektroniko honetan eskura daiteke:

http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/pdf/dokumentuak/II_interinstitucional_e.pdf

³⁸ Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundea. *2005eko memoria* (28. or). Helbide honetan dago eskuragarri: <http://www.emakunde.es>

Dokumentu hori hezurmaitu zuten Erakundeen arteko Hitzarmena koordinatzeko organoek bolada batean ez dute jarduerarik izan, Txosten honen aurkezpenean aipatu dugun erakunde aldaketaren ondorioz, eta, horrenbestez, ez dute Proposamena sendotzeko, hobetzeko, haren erabilera eta garapena aztertzeko edo berrikusteko inolako jarduerarik egin. Horrez gainera, kontuan hartzekoa da esparru instituzional berria dela eta, **erreferentziazko termino berriak sortu direla**, eta, horren ondorioz, hainbat termino daudela dantzan genero-indarkeriaren fenomenoaren inguruan: hainbat sektore profesionali loturiko hainbat termino, irismenari buruzko hainbat kontzeptu, edota adostasunezko ebazpenen inguruko hainbat atxikimendu.

19. gomendioa

Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeen zenbaketa erakundeek kudeatutako **gizarte programa** bakoitzean sartzeari gizarte zerbitzuen eremuan egin beharreko datuen erregistro lanaren baitan, eta informazio hori **zentralizatuko duten euskarriak** ezartzea.

Bizkaiko Foru Aldundiak, erakundearen gizarte-programa bakoitzean artatzen dituen etxeko tratu txarren biktimen inguruko informazioa jasotzerakoan, “Etxeko tratu txarrei buruzko informazioa biltzeko gizarte zerbitzuentzako eredu” baliatzen du. Eredu hori Erakundearen arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordean³⁹ adostua da eta gizarte-zerbitzuetan informazioa biltzeko aipatutako akordioan adierazten da nola bete behar den.

Informazio hori programa batzuetako eta besteetako datuekin osatzen da, eta bakoitzaren memoriak lantzeko oinarri gisa erabiltzen da. Horrenbestez, informazioa zentralizatuta eta eskueran dago.

Gainera, tresna hori Erakundearen arteko Hitzarmenean xedatzen den moduan erabiltzea sustatzeko, foru erakundeak baldintza hau jaso zuen harrera-zentroetako sarbidea arautzen duen dekretuan⁴⁰:

3. artikulua. 5. puntua

Tratu txarrak gertatu diren kasuetan, etxean tratu txarren eta sexu erasoaren biktima diren emakumeen arreta hobetzeko indarrean den Erakundearen arteko Protokoloak zehazten dituen preskripzio eta jarduera-neurriak bete beharko dira, eta harakoaren eranskinetan bildutako gizarte zerbitzuen eremuari dagozkion fitxak beteko dira.

Horrela, udalerriek eta mankomunitateek foru baliabideetara bideratzen dituztenean kasuak, eta kasu horietan aipatutako fitxa betetzeko eskatzen denean, alde batetik, Erakundearen arteko Hitzarmenean xedatutakoa betetzen da, eta, bestetik, bidea egiten da datuak jasotzeko tresna hori gizarte-zerbitzuetako profesionalen artean hedatzeko eta, oro har, Hitzarmenaren edukia eta hitzarmenaren esparruan egituratutako tresnak hedatzeko eta kontzientzia zabaltzeko.

Behatokiaren lanean funtsezko arloa eta eginkizuna da **udalerrietako eta mankomunitateetako** programen bidez artatutako emakume biktimen kopuruei buruzko datuak jasotzea, eta erakunde horiengandik jasotako erantzuna aintzat harturik, oro har, esan dezakegu aurrerapausoak eman direla emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak erregistratzerakoan. Nolanahi ere, 22. gomendioari dagokion atalean xehetasun handiagoz aztertuko dugu alderdi hori.

³⁹ http://www.bizkaia.net/Gizartekintza/Genero_indarkeria/pdf/dokumentuak/Fichas_Unificadas_eu.pdf

⁴⁰ Bizkaiko Foru Aldundiaren 196/2005 Foru Dekretua, abenduaren 7koa, emakumeak hartzen dituzten zentroetan sartzeko baldintzak eta horretarako banakako laguntza ekonomikoak araupetzen dituen (BAO, 241. zk., 2005/12/21).

20. gomendioa

Erakunde guztiak engaiatzea gizarte zerbitzuen eremuan lan egiten duten haien profesionalak, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan derrigorrez bete behar denez, etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktima diren emakumeentzako laguntza hobetzeko Erakundeen arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak onartutako **“Etxeko tratu txarrei eta sexu indarkeriari buruzko informazioa biltzeko gizarte zerbitzuentzako eredu” ezagut eta erabil dezaten** agintzeko.

21. gomendioa

Datuak erregistratzeko eta informazioa gordetzeko –urteko memoriak, programei buruzko txostenak, etab.- **sistema informatikoa** aipatu “Etxeko tratu txarrei eta sexu indarkeriari buruzko informazioa biltzeko gizarte zerbitzuentzako eredu”-n jasotako informazio eremuan araberako **hobetzea**, ereduak biktimari, erasotzaileari eta tratu txarraren ezaugarriei buruzko datu sorta zabala jasotzen baitu.

Gomendio horien garapenarekin loturiko jarduerak

Txosten honen aurreko atalean adierazi dugunez, **Bizkaiko Foru Aldundiak** Erakundeen arteko Hitzarmenean⁴¹ agindutako ereduetara egokitzen du aldundiaren gizarte-programa bakoitzean artatutako indarkeriaren biktimei buruzko informazio bilketa; Gizarte Zerbitzuen esparruan tratu txar eta sexu-indarkeria kasuei buruzko informazioa biltzeko ereduetara, hain zuzen. Era berean, udalerriek eta mankomunitateek Foru Aldundiko harrera-baliabideetara bideratzen dituztelarik tokian tokiko kasuak, eredu horietan eskatzen den informazioa galdegiten zaie, ez baita ohikoa izaten informazio hori ematea. Hala, betekizun horren bitartez ere **sustatzen da tresna horien hedapena eta aplikazioa**.

Erkidego mailan, tratu txarren eta sexu-erasoen inguruko informazioa biltzeko eredu horiek Diagnostikorako eta Esku-hartze Sozialerako Tresnan jaso ziren⁴². Diagnostiko sozialak lantzeko eta horien jarraipena egiteko aplikazio informatikoa da aipatutako tresna hori. Hala, arazo hori hautematen zen kasuetan, aplikazioak aukera ematen zuen fitxak betetzeko.

Orain arte ez da azterlanik egin datuak biltzeko eredu horien erabilera zenbatekoa eta nolakoa den jakiteko. Alde horretatik, **Eudelek eta zenbait udalek** adierazi dute komenigarria litzatekeela tresna horiek berrikusteko prozesu bati ekitea, praktikan baliabide horien berri izateko eta gizarte-zerbitzuen lan-dinamikara zenbateraino egokitzen diren jakiteko.

⁴¹ Ikusi 36. oin-oharra.

⁴² Eusko Jaurlaritzako garai bateko Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailak landua. Informazioa zabaltzeko aipatutako sailak 2006an argitaratutako dokumentu hau kontsulta daiteke: “Diagnostikoa eta Esku-hartze Soziala. Gizarte Lanerako Tresna Informatikoa”.

Behatokitik lurralde mailako datu sozialak eta bestelakoak eskuratzeko zereginarekin zerikusia dutenak: 22-27 gomendioak.

22. gomendioa

Gizarte zerbitzuen eremuko erakundeek bil ditzaketen datuak partekatzea, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behaketak berak zentralizatuta kudeatzen duen "Lurraldeko datu bilketako fitxa" bezalako **tresna estandarizatuak erabiliz**, datuok ustiatzea ahalbidetzeko.

2004. urteaz geroztik, Bizkaiko udalerriek eta mankomunitateek dituzten baliabideei buruzko datuak biltzen ditu Behatokiak, baita etxeko tratu txarrak edo sexu-indarkeria jasan eta udalen eskumeneko baliabide horietan artatu dituzten emakumeen kopuruari buruzko datuak ere.

Orduz geroztik, informazioa eskatzen zaienean, nabarmen hobetu da erakundeen erantzuna; hain zuzen, harrera, aholkularitza juridiko, arreta psikologiko edota familien elkargune zerbitzuaren arloetan baliabideren bat duten erakunde guzti-guztiek laguntzen diote Behatokiari indarkeria arazoak izan eta laguntza jasotzen duten emakumeei buruzko datuak ematen. Hobekuntza horren isla da Behatokiaren galdeketari **erantzuten** dioten erakundeen **indizea**, baina horrez gain, baita erakundeek ematen duten **informazioaren garrantzia** ere, epe horretako zifrak jasotzen dituzten urteko txostenetan egiazta daitekeenez⁴³, udaletatik eta mankomunitateetatik iristen den informazioa gero eta osoagoa baita.

Bereziki nabarmentzekoa da artatutako emakumeen profilari buruzko galdera gehiago sartu zirela 2008an, haien ezaugarrien berri hobeto jakiteko. Urte hartan ezinezkoa izan zen erakunde guztien datuak jasotzea, baina hurrengo urtean, oro har, erakunde guztiek eman zuten informazio hori, eta, hala, gehienek erakutsi zuten bazutela malgutasuna datuen erregistroa eskabide horretara egokitzeko. Datuen arloko gabezietan oso ohikoa izaten da prozesua egiten denean ohiko informatzailea ez egotea, eta normalean, gainera, ez da haren ordezkorik izaten, erakunde informatzaileetan izaten den lan-kargaren eraginez. Ohikoa izaten da, halaber, informazioa zentralizatzeko euskarririk ere ez izatea.

Udalerrien eta mankomunitateen lan onaren eta lankidetzaren beste erakusgarri bat izan da sei hilean behin datuak biltzeko prozesuari emandako erantzuna. Behatokiak 2010ean ekin zion prozesu horri eta lehen aldi hartan erakundeen %62k hartu zuen parte; 2011n, berriz, nabarmena izan da hazkundera, %96,6k erantzun baitu.

⁴³ Eskueran daude 2004. urteaz geroztik BGIBren webgunean:
http://www.bizkaia.net/Gizartekintza/Genero_indarkeria/eu_index.html

23. gomendioa

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak zentralizatuta kudeatzen duen “Lurraldeko datu bilketako fitxa” **hobetzea** honakoak gehituz: A. Kontzeptuei buruzko azalpenak. B. Honakoei buruzko erregistro eremu berriak:- biktimen ezaugarri sozio demografikoak (adina, nazionalitatea, arazo gehigarriak...), profilak eta dauzkaten premiak aztertu ahal izateko.- erasotzailearen ezaugarriak.- gizarte eremuan egindako bestelako izapidetzeak (adib.: laguntza ekonomikoen izapidetzeak, etxebizitzakoak, etab.)

“Lurraldeko Datuak Biltzeko Fitxa” Behatokiak bidali eta jasotzen du: Bizkaiko udalerrri eta mankomunitate bakoitzarentzako inprimaki digital bat da, eta informazioa kudeatzeko sistema orokorrago baten osagaietako bat.

2009an hainbat hobekuntza egin ziren fitxa horretan, 23. gomendioan jasotako alderdien gainean. Honako hauek, hain zuzen:

A. Kontzeptuak argitzea:

Erakundeen arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan adostutako terminologiari buruzko proposamenean jasotzen diren definizioak inprimakitik bertatik kontsultatzeko aukera jarri zen, kontzeptuei buruzko zalantzak argitzeko eta kasu guztietan esanahi okerrak edo ez-osoak gutxitzeko.

Hala, *kontsultarako botoi* bat gehitu zen aholkularitza juridikoko eta arreta psikologikoko programetan artatutako kasuak aztertzen diren atalean. Egun, botoi horri sakatuz, lauki bat sortzen da eta hor ageri dira definizioen laburpenak, iturriaren identifikazioa eta bi esteka: “Emakumeen aurkako indarkeria. Terminologiari buruzko proposamenak” dokumentuarena eta Erakundeen arteko Hitzarmenarena, bi-biak BGIBren webgunean, dagokien atalean.

The screenshot shows a web page titled "Definiciones terminológicas". It contains three sections:

- Agresiones y abusos sexuales**:
 - Las agresiones sexuales son aquellas que se producen mediando violencia o intimidación. El caso más paradigmático es la violación en sus diferentes formas. (1)
 - Los abusos sexuales son aquellos que se realizan sin violencia o intimidación. Están incluidos aquí los abusos cometidos sobre personas que no pueden prestar un consentimiento válido por tener limitada su capacidad volitiva o intelectual (menores, personas privadas de sentido o con determinadas discapacidades psíquicas, etc.). (1)
- Maltrato doméstico**:
 - Se considera maltrato contra la mujer en el ámbito de la vida íntima que se ejerce contra una mujer actual o previa, con el fin de someterla a su voluntad o de tener o pueda tener el control de ella en la relación. v que tenga o pueda tener el control de ella en la relación.

At the bottom right, there is a "Fuentes:" section with two references:

- (1) ["La violencia contra las mujeres. Propuestas terminológicas"](#), Comisión de Seguimiento del Acuerdo interinstitucional.
- (2) ["II Acuerdo Interinstitucional para la mejora en la atención a mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico y de violencia sexual"](#)

A red 'X' icon is visible in the bottom right corner of the screenshot.

B. Informazioa erregistratzeko eremu berriak

Urtean zehar indarkeria arazoak direla-eta artatutako kasu *berriei* buruzko beste hainbat galdera gehitu ziren, erasotzailearekiko erlazioari, nazionalitateari eta adin nagusitasunari buruz informazio gehiago eskuratzeko.

2010ean informazioa erregistratzeko beste eremu bat gehitu zen, jakiteko ezgaitasunen bat duten zenbat emakumek jo duten udal programa horietara.

24. gomendioa

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak dauzkan hedapen eta komunikazio baliabideak

–webgunea, Informazio aldizkariak, posta elektronikoa, idazkaritza teknikoak, etab.- **honakoetarako baliatzea**:- datu bilketako tresnak eta prozesuak, kontzeptuak argitzeko agiriak, etab. hedatzeko-emakumeen aurkako indarkeriari buruzko agiri terminologikoak prestatzeko burutzen diren ekimenak hedatzeko- erakunde informatzaileen datu zenbaketa prozesuan sor daitezkeen zalantzak bideratzeko edo argitzeko.

2007. urteaz geroztik, Behatokiak urtero egiten dituen txostenetan eranskin moduan gehitzen da “Emakumeen aurkako indarkeria. Terminologiari buruzko proposamenak” dokumentua: bai emakumeen aurkako indarkeria-egoerak artatzeko eskueran dauden baliabideen inguruko txostenetan, bai eta udalen, aldundiaren edo erkidegoaren eskumeneko asistentzia-sarearen bidez arazo hori dela-eta artatutako emakumeei buruzkoetan ere. Bi kasuetan, txostenak Behatokiaren **webgunean** argitaratzen dira eta, horrez gain, arlo horretako jarduerari buruz informazioa eman eta lagundu duten Bizkaiko udalerrri eta mankomunitateetan ere **hedapen espezifikoa** egiten da.

2009an, **udalen eta mankomunitateen jarduerari buruzko datuak biltzeko** erabiltzen den galdetegi digital berezitan integratu zen dokumentu hori eta, beraz, ordudunik aukera dago galdetegitik bertatik terminologiari buruzko proposamenen dokumentuan jasotako **definizioen** laburpena kontsultatzeko eta, modu horretara, kontzeptu aldetik interpretazio okerrak edo ez-osoak sor ditzaketen zalantzak argitzeko. Gainera, galdetegi digitalean lotura zuzena jaso zen hitzarmenaren **dokumentu** osora. Aukera hori bietan jasotzen da, urteko datuak eta seihileko datuak biltzeko galdetegietan. Azken hori 2010ean egin zen lehen aldiz.

25. gomendioa

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak burutzen duen **datu bilketan** urteroko maiztasunetik seihileko maiztasunera **aurrera egitea**, egoeraren aldaketa nagusiari buruzko informazio eguneratuagoa eman ahal izateko.

Gomendio hori Behatokiaren 2009-2012 Lan Planean jaso zen, datuen bilketa-prozesua hobetzeko ildoaren barnean.

2010eko bigarren seihilekoan jarri zen martxan datuak sei hilean behin biltzeko esperientzia pilotua, udalerrri eta mankomunitateetako programetan zenbat emakume artatu diren jakiteko asmoarekin. Adierazleen Lan Taldeak antolatu eta koordinatu zuen datuen bilketa hori.

Hauek dira datuak sei hilean behingo bilketaren helburuak: **informazio eguneratua** eskuratzea, batetik, emakume biktimen aldetik arretako baliabideen eskakizun zehatzean zer bilakaera izan den jakin ahal izateko, eta bestetik, tokiko erakundeetan emakumeen aurkako indarkeriaren arloan **datuak biltzeko sistemak bultzatzea edota hobetzea**; izan ere, Behatokiak jakin badaki urteko datuak eskatzerakoan, hainbat kasutan, erakundeetako erregistro-sistemetan eta datuak kudeatzeko sistemetan, bietan, zeudela eskatutako datuak.

Sei hilean behingo bilketa hori egiteko tresna berri bat prestatu du Behatokiak, horretarako egokitutako galdetegi digital bat, BGI Breen urteko datuak biltzeko fitxa oinarritzat hartuta. Lurraldeko udalerrri eta mankomunitateetan indarkeriaren biktima diren emakumeak artatzeko programetan bildutako datuei buruzko galderak zehazten dira galdetegi horretan ere.

Bilketa hori antolatzerakoan, Lan Taldeak kontuan hartu zuen erakunde informatzaileen lan-karga eskabide berriari erantzuteko. Aurrez ere bazuen arazo horren berri, Behatokiak udalerrri eta mankomunitateei urteroko datuen eskabidea egiten zienean ere azaleratzen baitzen karga hori. Eragin hori murrizte aldera, eta esperientzia pilotua zela aintzat hartuta, datuak biltzeko ohiko laguntza-neurririk hartu gabe ekin zitzaion egitasmoari. Hala ere, erakundeen %62k hartu zuen parte ekimenean.

Seihileko esperientziaren emaitzak 2011ko martxoaren 31ko osoko bilkuran aurkeztu zituen Lan Taldeak.

Informazio bilketaren asmoa batez ere zen datuak biltzerakoan sistematizazio-mekanismoak sustatzea, eta, horrenbestez, banakako txostenak egin eta bidali zitzaizkien prozesuan parte hartu zuten erakundeei. Behatokiak udalerrri edo zerbitzuen mankomunitate horri buruz erregistratutako datu-sortatik atera daitezkeen adierazle esanguratsuenen laburpena zehazten da txosten horietako bakoitzean. Guztira 18 txosten egin zituen Behatokiak.

Erakundeek txostenari buruz zuten iritzia jakiteko, baloraziorako galdetegi labur bat ere landu zen, eta txostenarekin batera bidali zitzaion, posta elektroniko bidez, erakunde informatzaile bakoitzari. Hainbat alderdi eskala batean balioesteko eskatu zitzairen: informazioaren ulergarritasuna, erabilgarritasuna, aurrez informazio horren gainean zuten ezaguera eta berriro antzeko txosten bat jasotzeko interesa, besteak beste. Horrez gain, hurrengo edizioetan zer alderdi hobe daitekeen ere galdetu zitzairen, modu irekian.

Lehen unean, erakunde gutxik erantzun zioten galdetegiari, eta, ondorioz, Taldeak komenigarritzat jo zuen, erantzun hori akuilatzeko, telefono bidez hartu-emanen jartzea. Eta hala, erakunde guztien balorazioa jaso zuen.

Lan Taldeak 2011ko apirilaren 11n eginiko bileran aurkeztu ziren balorazio horren emaitzak.

2011n bildu zituen Behatokiak, bigarren aldiz, sei hilabeteetan artatutako kasuei buruzkoak, hain zuzen, eta bigarren hartan erakundeen %96,6k hartu zuen parte ekimenean. Erakunde ia guztiek parte hartu zuten, arretaren arloan beren baliabideak dituzten udalari eta mankomunitate guztientzako landu ziren txostenak, 29 guztira.

Aurreko urteko bilketa hobetzeko helburuak ezarri ziren, bai prozesua bera hobetzeko eta bai emaitzak udaletako txostenetan adierazteko modua hobetzeko. Eta horri begira hartutako neurrien artean, Foru Aldundiko bertako eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko datuak ere bildu ziren joan den urtean. Horrenbestez, 2011n landutako udal txostenetan, udalari eta mankomunitateetako programei dagozkien datuez gain, foru programetako eta polizia-erregistroetako datuak ere jaso ziren.

26. gomendioa

Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen aurkako indarkeria egoerentzako laguntzari buruz prestatutako **informazioa zabaltzea** hari **tokiko poliziek** horretaz izandako jarduerari buruzko datuak sartuz.

Gomendio hori Behatokiari berari zuzendutakoa da eta horren xedea da datuak ematen dituzten iturri instituzionalen irismena zabaltzea, modu horretara Bizkaian indarkeriaren biktimen arreta eskakizuna zehazteko.

Orain arte ez da inolako neurririk hartu gomendio horren harira. BGIBk ez du polizia-esparruko iturririk gehitu datuak biltzeko, eta informazioa lantzeko eta hedatzeko prozesuetan, eta, horrenbestez, esparru horretatik datozen datuak soilik Ertzainaren jardunera mugatutakoak dira.

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak emandako datu horiei dagokionez, garrantzitsua da zehaztea 2011n, urteko lehen seihilekoari dagozkion datuak **udalerrien arabera xehakatur**a heldu direla, eta horrek aukera eman duela Behatokiak landutako udal txostenen edukia hobetzeko. Arestian esan dugunez, arretaren arloan beren baliabideak dituzten Bizkaiko udalerrri eta mankomunitate guztientzako lantzen ditu Behatokiak txosten horiek.

Alde horretatik, Herrizaingo Sailaren laguntzarekin (Behatokia osatzen duten erakundeetako bat da Sail hori ere), udalerrien eta mankomunitateen eskura jartzen dira Ertzaintzaren erregistroetan haien jarduera-esparruari buruz jasotako datuak. Horretarako, aski dute Behatokiak lantzen dituen lurraldeko urteko txostenak eta udalerrietako seihileko txostenak kontsultatzea.

Bestalde, Bizkaian ugaritu egin dira indarkeriaren biktima diren emakumeen arreta hobetzeko tokiko koordinazio-protokoloak dituzten erakundeak, eta, koordinazio-prozesu horietan udaltzainek parte hartzen dutenez, ematen du badirela herrietako polizien erregistroetako informazioa tartean diren erakundeen artean partekatzeko guneak.

Nolanahi ere, bada oztopo nagusi bat gomendio hori bideratzeko, alegia iturri informatzaileen artean tokiko polizia kidegoak ere gehitzeko: neurria munta handikoa da zorroztasunez abiarazteko –izan ere, ez dago informazioa zentralizatuko duen organorik– eta, horrenbestez, Behatokiak gaur egun dituen baliabideak aintzat hartuta, beste jarduera-esparru batzuen kalterako izan daiteke ahalegin hori.

27. gomendioa

Bizkaian indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntzan lan egiten duten **elkarteen** jardueratik ateratako datuak **ikusaraztea**, datuok BGIBk prestatzen duen informazioan sartuz, egun laguntza instituzionalaren datuetan oinarritzen baita.

Gomendio hori Behatokiaren 2009-2012 Lan Planean jaso zen, datuen bilketa-prozesua hobetzeko ildoaren barnean.

Gaur-gaurkoz ez da neurri zehatzik hartu elkarteetako datuak biltzeko asmo horren gainean. BGIBk tokiko, foru aldundiko eta EAEko erakundeen administrazio-erregistroetatik datozen datuak biltzen ditu eta horietan oinarrituta lantzen du informazioa.

Nolanahi ere, aipatzekoa da foru aldundiaren edo udalerrien eskumeneko programen kasuan, hirugarren sektoreko erakundeekin izenpetutako hitzarmen edo kontratuen bidez ematen dela zerbitzua. Kasu horietan, BGIBk urtero argitaratzen duen “*Etxean indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko foru-baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak. Harrera, Aholkularitza juridikoa, Laguntza psikologikoa, Familietan esku hartzeko programa espezializatuak eta Familia-elkarguneak. BLH*” dokumentuan adierazten da zer erakundek ematen duen zerbitzu hori.

Neurri hori Bizkaian diharduten elkarte guztietara hedatzeko oztopo nagusia da baliabide asko beharko lirakeela lan hori zorrotz betetzeko. Hori dela eta, Behatokiak erabaki du ahalegin handiagoa egitea datuak eskuratzeko prozesua hobetzeko eta administrazio-erregistroetan oinarritutako informazioa lantzeko.

4.2.3. PROFESIONALENTZAKO PRESTAKUNTZA

Erakundeetako baliabideen kudeaketa: pertsonal-hautaketa, programen kontratazioa/hitzarmena/konbenioa, trebakuntza eta prestakuntza-birziklapena: 28-33 gomendioak

28. gomendioa

Herri Erakundeek sustatutako lan-eskaintza publikoetan lanpostuetarako deialdi guztietako gaietan aukera-berdintasunari eta genero-politikei buruzko gaiak sartzeari.

Gomendio horrek indarreko araudia garatzen du, hain zuzen ere 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta honela agertzen da 17.4 Artikuluan, euskal herri-administrazioen zerbitzura dagoen pertsonalaren trebakuntza dela eta:

“Enplegu publikora sartzeko hautapen-prozesuen gaien artean, euskal herri-administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioari eta horrek administrazio-jardueran duen aplikazioari dagozkion edukiak sartuko dituzte”.

HAEE- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, Eusko Jaurlaritzaren pertsonal-hautapenerako barne-deialdi guztietan (bai enplegu-eskaintza publikoetan bai lan-poltsak eratzeko berriazko deialdietan) emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko gaiak datoz.

Halaber, **Bizkaiko Foru Aldundiaren** erregistroan, 2008ko bigarren seihilekoaren eta 2011ko lehen seihilekoaren artean, enplegu publikoan sartzeko hautapen-prozesuen 29 deialdi amaitu agertzen dira, hainbat espezialitatekoak, eta **den-denen gai-zerrendan** aipatzen dira aukera-berdintasunari eta genero-politikei buruzko gaiak.

Bestalde, Emakunderen webgunean kontsulta eta deskarga daiteke 4/2005 Legearen betetze, garatze eta ezartzeari buruzko Azken Txostena⁴⁴, artikuluak zenbateraino betetzen diren zehazten duena.

Txosten horren arabera, 2010eko bigarren seihilekoan EAEn egindako enplegu publikoan sartzeko 64 hautapen-prozesuen artean (%53,6 Bizkaikoak), 26tan bakarrik (%40,6) aipatzen dira emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko edukiak gaitan, hau da, 20 puntu gutxiago 2008an baino (%60,7). 26 prozesu horietatik gehienak aldundi eta udalenak dira, eta %65,4 Bizkaiko Lurralde Historikoko erakundeetakoak dira.

⁴⁴ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea betetze, garatze eta ezartzeari buruzko Azken Txostena. Helbide elektronikoa honetan eskura daiteke: http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20010/eu/contenidos/informacion/u72_ley_igualdad/eu_ley_igua/adjuntos/evaluacion-final-2005-2010_eu.pdf

29. gomendioa

Erakundeek bultzatutako **lan-eskaintza publikoetan**, kasu bakoitzean beharrezkoa litzatekeen zabaltasun eta zehaztasunez, **etxe barruko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntza kontuetako lanari** lotutako espezialitateetako lanpostu-deialdietako gaien barruan justizia, polizia, osasun, psikologia edota gizarte alderdiei buruzko gaiak **sartzea**; eta beharrezkoa denean, gaiari buruzko prestakuntza- edota esperientzia-eskakizun bereziekin osatzea.

Bizkaiko Foru Aldundiak gomendio hori betetzen du, eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko berriazko gaiak agertzen dira etxe barruko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntza kontuetako lanari lotutako espezialitateetako lanpostu-deialdietako gai-zerrenda guztietan.

Horrela, 2010eko hautaprobeen artean⁴⁵, **Gizarte Lana** espezialitatearen gai-zerrendan zati berezi bat dago, eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzkoak dira hiru gai; halaber, **Psikologia** espezialitateko zerrendan zati oso bat dago (IV) horri buruzko sei gairekin.

Eusko Jaurlaritzak ez du egin etxe barruko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntza kontuetako lanari lotutako espezialitateetako lanpostu-deialdirik 2010eko Enplegu Eskaintza Publikoan. Dena dela, **Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzako** teknikari-lanpostuak betetzeko "barne-lehiaketan" gai horri buruzko ezagutza zehatzak eskatzen ziren (Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikastaroa, 150 orduetik gorakoa).

⁴⁵ Ahalduen Nagusiaren 136/2010 Foru Dekretua, apirilaren 26koa, administrazio bereziko eskalan hautaprobetarako deialdi batzuk onesten dituena (BAO, 80. zk., 2010/04/30).

30. gomendioa

Administratziotik tratu txarren biktimezako laguntza kontuetan zerbitzuak ematen dizkioten **enpresa edo erakundeei** horretarako definituta leudekeen prestakuntza- eta esperientzia-**eskakizunak betetzeko eta egiaztatzeko eskatzea**, bai erakundeari berari dagokionez, bai programa emango duten langileei dagokienez.

Bestalde, administrazioak zerbitzua emango duen erakunde edo enpresari talde profesionala osatzen dutenen **ordezkapena edo aldaketa** egin behar den bakoitzean, aldaketa hori behar bezala jakinarazteko eta alde zurretik, dagokion "curriculum vitae"ren bitartez proposatutako pertsonak eskakizunak betetzen dituztela frogatzeko eskatuko dio.

Bizkaiko Foru Aldundiak emakumeen aurkako indarkeriari buruzko gaietan espezializaturik egotea eskatzen du indarkeriaren biktima diren edo horrekin zuzeneko edo zeharkako harremana izan dezaketen emakumeei eskainitako programa guztietan, hitzarmen nahiz kontratu bidezkoetan.

Giza Baliabideei buruzko klausulan dator finkaturik laguntza emango duen lantaldearen osaera, hau da, profesionalen kopurua, prestakuntza eta esperientzia.

Titulazioak behar bezala egiaztatu behar dira, bai eta esperientzia ere, *curriculum vitae* bidez. Lantaldeko profesionalen artean aldaketaren bat balego, foru-erakundeari alde zurretik jakinarazi behar zaio, eta langile berrien datuak eman.

Halaber, Erakundeen arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen hitzarmena betez⁴⁶, lantaldeetan abokaturik balego, bateraezintasun-klausula bat dago, zerbitzu horretan ari diren profesionalak euren jarduera profesional pribatuan juridikoki aholkatu, ordezkatu edo defenda ez ditzaten etxeko tratu txarrekin edota sexu-askatasunaren kontrako delituekin loturik dauden delituak ustez egin dituzten pertsonak.

Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak (Eusko Jaurlaritzaren Barne Saila) genero-indarkeriari buruzko prestakuntza eta esperientzia eskatzen die berarekin kontratuak dituzten enpresei edo berarekin lankidetzak hitzarmenak dituzten elkarte eta erakundeei.

⁴⁶ Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei zerbitzu publikoetan laguntza profesionala eskaintzearekin bateraezintasunak diren jardueri buruzko Jarraipen Batzordearen Hitzarmen Proposamena. Hemen dago eskuragarri: http://www.emakunde.euskadi.net/u72-preven/es/contenidos/informacion/viol_coordinacion/es_emakunde/adjuntos/acuer_incomp_2005.pdf

31. gomendioa

Erakunde bakoitzean eremu bakoitzeko prestakuntza-premiak jasoko dituen **urteko Prestakuntza Planak prestatzea**, eta haien diseinuak premiei eraginkortasunez erantzutea. Plan horien barruan, helburuak, edukiak eta hartu dituzten pertsonen eskuratutako ikasketa-maila betetzeari dagokionez, emandako ikastaroen, prestakuntza ekintzen eta prestatzaileen **ebaluazio**-planok bultzatzea eta orokortzea, eskaintza hobetu ahal izateko, bai arloei eta gaiiei zein irakasleei dagokienez.

Bizkaiko Foru Aldundiak Urteko Prestakuntza Plan bat du lanpostu bakoitzerako, eta administrazio-unitate bakoitzak definitzen du, bertako langile guztiak aintzat harturik. Plan horretan zehazten dira gaiak, txostengileak, datak eta parte-hartzaileak, eta HAEERekiko lankidetzahitzarmen baten bidez gauzatzen da; bertan, emandako prestakuntza-ekimen bakoitza ebaluatzen da, bai ikasleek zenbat ikasi duten bai nola baloratu duten ikastaroa. Horretarako, galdera-sorta bat betetzen dute, eta bertan aipatzen dira, besteak beste, gaia, irakasleak eta ikasmateriala.

Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak (Eusko Jaurlaritzaren Barne Saila) ez du urteko Prestakuntza Planik, baina egon dira prestakuntza-saioak, Zuzendaritzako langileentzat ez ezik hainbat eremu, elkarte eta erakundetako langileentzat ere, indarkeria matxistaren kontra ari diren eragileentzat, hain zuzen. Besteak beste:

- "Genero-indarkerian hain bistakoak ez diren moduak" jardunaldia (Bilbo, 2010eko irailak 29 eta 30).
- Nazioarteko jardunaldia. "Genero-indarkeriaren erasotzaileak berreztea helburu duten esku-hartzeko programak" (Bilbo, 2010eko azaroak 5).
- "Emakumeen sexu-esplotaziorako salerosketari buruzko jardunaldia" (Gasteiz, 2011ko maiatzak 16).
- Genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko jardunaldia. "Komunikabideak eztabaidagai" (Bilbo, 2011ko azaroak 3 eta 4).
- "Sexu-erasoak nola bizitzen diren, nola ulertzen diren, eta nolako arreta ematen zaien" ikerketaren aurkezpena. Hamar mintegi.
- "Kulturartekotasuna eta Genero Indarkeria". Ikastaroak.

32. gomendioa

Prestakuntza-planen hartzaileren artean **indarkeriaren biktimei diren emakumeak** haien azken erabiltzaileak guztiz edo zati batean diren taldeentzako laguntza-programak kudeatzen edo **zerbitzu zuzenak** ematen dituzten pertsonak sartzea.

Gomendio hori Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legetik dator. Honela agintzen du 53.2 Artikuluan:

“Euskal herri-administrazioek, betiere, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen eta ezabatzen eta biktimei zaintzen eta haiei laguntzen diharduten erakunde pribatueta langileek prestakuntza jaso dezaten lagunduko dute”.

Bizkaiko Foru Aldundiak “Gizarte Arloko Topaketak” izeneko bidez egiten du lan hori. Gizarte Ekintza Sailak antolatzen ditu jardunaldi horiek, urte osoan zehar, erakunde pribatuentzat, herritar, Saileko langile, Topaketak lantzen duen eremuko langile, Sailaren lankide diren erakunde, elkarte, arduradun politiko eta abarrentzat. 2011ko urtarrilean egin zen Bilbon “Familia barruko indarkeria: balantzea eta jarduerak” jardunaldia. Bertan, indarkeria mota horren azpian dagoen generoaren arazoa landu zen; eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko topaketa berezi bat egiteko asmoa dago.

Era berean, **Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak** berriazko prestakuntza bultzatu du genero-indarkeriarekin loturak dituzten sektore profesionalentzat: ertzain, udaltzain eta gizarte-langileentzat.

Ertzaintzari dagokionez, beste jarduera batzuen artean, sexu-erasoen inguruan sentsibilizatzeko eta prestatzeko bi mintegi antolatu dira, 2011ko maiatzaren 13tik 17ra, 9etatik 13etara. Bestalde, Ertzaintzarentzako sentsibilizazio-bideo bat egingo du lantalde batek, GIBLZ, Euskal Herriko Polizia Ikastegi eta Ertzaintzako langilez osatua. Helburu horrekin, sei lansai egin dira (GIBLZren Bilboko egoitzan, 2011ko martxoaren 17, apirilaren 14, maiatzaren 12 eta 26, eta ekainaren 8 eta 23an), bertan prestatu da gidoia, eta bideoa 2012an egiteko asmoa dago.

Genero-indarkeriaren biktimei diren emakumeentzako diru-laguntzak arautzen dituen Agindu berria dela eta, berriazko prestakuntza eskaini zaie gizarte-langileei: GIBLZko langileek emandako mintegiak Bilbon (2011ko ekainaren 21ean) eta Gasteizen (2011ko ekainaren 24an); Gizargik antolatutako Jardunaldi bat Donostian (2011ko azaroaren 23an) gizarte-langileentzat, Zuzendaritzak kudeatutako diru-laguntzen berri emateko eta GIBLZren lana azaltzeko; Durangoko udaleko gizarte-langileentzako Jardunaldi bat 2011ko abenduaren 15ean, Zuzendaritzak kudeatutako diru-laguntzen berri emateko eta GIBLZren lana azaltzeko.

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Immigrazio Zuzendaritzaren eta GIBLZren lantaldeak ikastaroak eman dizkie hainbat kolektibo profesionali, emakume etorkinen arrisku egoerari buruz: 2011ko azken hiruhilekoan lau ikastaro eskaini zaizkie elkartei; bat

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia

Arabako Foru Aldundiari; eta beste bat GIBLZri, Immigrazio eta Aniztasunaren Kudeaketarako Zuzendaritzari, eta Bizkaiko Foru Aldundiko teknikariei. Ildo berean, 2012ko programazioan datoz Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko eta Ertzaintzako langileentzako eta Berdinsareko – berdintasunaren aldeko eta indarkeriaren aurkako udalerrien sarea (EUDEL)– teknikarientzako ikastaroak; bai eta immigrazioari eta genero-indarkeriari buruzko jardunaldi bat ere.

Aipagarria da Euskal Herriko Polizia Ikastegiarekiko elkarlana eta GIBLZren parte-hartze aktiboa **Ertzaintzaren prestakuntzan**: komisarioentzako ikastaroa (2011ko apirila), eta Ertzaintzan sartzeko ikastaroan sei talderi sei saio ematea, 2011ko irailaren 20an (3 saio) eta 28, 29 eta 30ean.

33. gomendioa

Prestakuntza profesionaleri ez ezik politikarier egi eta zerbitzuen kudeatzaileei ere zabaltzea, kasu bakoitzean egoki irizten zaion sakontasun mailarekin.

Aurreko atalean aipatu bezala, **Bizkaiko Foru Aldundiaren** urteroko Gizarte Arloko Topaketak politikarientzat ere badira, eta ez bakarrik langile teknikoentzat eta herritarrentzat.

2010 eta 2011n, **Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak** batzorde txostengileak antolatu ditu hainbat forotan, erakunde eta instituzio publiko zein pribatuek eskaturik. Bertan, genero-indarkeriaren azterketa globala egin da, bere adierazpen guztiak biltzen saiatuz, esku hartzeko ildoak eskaini dira arazo hori ezabatzen jarraitzeko, edo hori ezabatzeko programak diseinatzen laguntzeko, aurreko ataletan aipatu bezala. Besteak beste: *“Genero-indarkerian hain bistakoak ez diren moduak”* jardunaldiak edo *“Genero-indarkeriaren erasotzaileak berreztea helburu duten esku-hartzeko programak”* izeneko Nazioarteko Jardunaldia (2010/11/05). Azpimarratzekoa da 2011n hamar mintegi eman zitzaizkiela hainbat kolektibo profesionali, sexu-erasoak prebenitzeko ikerketa baten emaitzak aurkeztuz, eta bertan izan ziren, askotan, politikariak eta langile teknikoak ere. Mintegiak Bilbon izan ziren, GIBLZren egoitzan. Honako hauek izan ziren hartzaileak eta datak:

- Berriemaileak: martxoaren 30a, 18etatik 21etara.
- Gazteekin lan egiten duten elkarteak: apirilaren 14a, 9:30etik 13etara.
- Hezitzaileak: apirilaren 6a, 9:30etik 13etara.
- Erakundeak: maiatzaren 3a, 9:30etik 13etara.
- Osasun-langileak: apirilaren 15a, 9:30etik 13etara.
- Emakume etorkinen erakundeak eta elkarteak: maiatzaren 6a, 9:30etik 13etara.
- Elkarte feministak: maiatzaren 10a, 18etatik 21etara.
- Antolatutako gizonak: maiatzaren 24a, 18etatik 21etara.
- Ertzaintza: maiatzaren 13a eta 17a, 9etatik 13etara.

Prestakuntza-ekimenen alderdi orokorrak: 34-39 gomendioak

34. gomendioa

Anbizio handiagoko prestakuntza-ekimenei heltzeko erakundeen arteko koordinazioa indartzea.

Oro har, prestakuntza-ekimenak egiteko erakundeen arteko koordinazioa erakunde publikoen lankidetz-esparru baten baitan dago, eta txostenak egiten dituzte ekitaldi, jardunaldi, mahainguru eta abarretan. Horrela, lankidetz aberatsa eta askotarikoa da, eta administrazioen artean ez ezik, hirugarren sektoreko entitateen eta erakunde horien artean ere hedatzen da.

Dena dela, orain arte ez zaie bestelako esperientziei ekin, adibidez **kofinantzateari**, jokabide ona izan litekeen arren garrantzi handiagoko ekimenei heltzeko orduan. Erkidegoan erakundeen arteko koordinazio zabala egon ohi da beste ekintza-esparru batzuetan; adibidez, azaroaren 25eko Emakumearenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren berri emateko elkarrekin egindako kanpainak erreferentziazkoak izan daitezke prestakuntza-ekimenak egiten saiatzeko.

35. gomendioa

Erakundeen arteko koordinazioa indartzea ezagutza-trukea sustatzeko. Horretarako, foro moduko tresnak izatea eremu instituzional orotako profesionalek elkarri zalantzak eta kasuak argitu ahal izateko.

Eremu instituzionalean ez da ekimenik egon emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan: ez da foro moduko tresnarik garatu kasuei buruzko zalantzak eta kontsultak argitzeko, edozein eremuko profesionalen artean.

Gomendio horrek aipatzen duen helburura zuzendurik ez badago ere, azpimarratzekoa da Eudelek garatutako esperientzia **Beldur Barik! kanpainaren** baitan.⁴⁷ Eudelekek Berdinsarearen bidez bultzatutako kanpaina horren helburua tokian tokiko erakundeen erantzuna indartzea da, emakumeenganako indarkeriaren kontrako borrokan. Honako hauen babesak du: Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritza), Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundea, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak; eta hauen lankidetzak: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) eta EITB.

Kanpainaren helburu zehatzen artean dago barruko lan-tresna bat finkatzea (elkarlaneko tresna), lan-sarea eta esperientzien trukea indartzeko, bai eta Beldur Barik ekimeneko teknikarien arteko komunikazioa errazteko ere.

⁴⁷ <http://www.beldurbarik.org/>

36. gomendioa

Kasu praktikoak eta jokabide onak dauzkaten prestakuntza-materialak sortzea eta hedatzea.

37. gomendioa

Prestakuntza eta informazioa uztartzea. Prestakuntza-jardueren diseinua baliatzea dagoen baliabide-sarea, lege-berrikuntzak, genero-indarkeria kontuetako esku-hartzearen lanbide-eremua osatzen duten pertsonak hedatzeko, elkarteak ezagutzeko, etab.

38. gomendioa

Materialak berritzea: bideoak, audioa, material idatzia, irudiak, web agiriak, etab. erabiltzea.

Eskuarki, egiten diren prestakuntza-ekimenetan (jardunaldiak, etab.) informazioa ematen da dagoen baliabide-sareaz, lege-berrikuntzez, genero-indarkeria kontuetan esku hartzeko eskumenak dituzten erakundeez, elkarteez... Izan ere, sarritan, baliabide horietako profesionalek zuzenean hartzen dute parte ekitaldietako txostengile moduan, erakunde antolatzaileak hala eskaturik. Erabilitako materialei dagokienez, batez ere euskarri informatikora jotzen da, eta ekitaldia antolatu duen erakundearen webgunean geratzen dira ostataturik, interesa dutenen eskura.

GIBLZk berak egindako 2009 eta 2010eko "Genero Indarkeriaren Biktima diren Emakumeak" Txostenak eman dizkie, CD euskarrian, administrazio, erakunde eta elkarteei.

Azpitarratzekoa da Zuzendaritza honentzat Helena Tabernak egindako "NAGORE" film dokumentalaren edizio berezia (Lamia Ekoizpenak). Filmak **Gida Didaktiko** bat du, heriotzan bukatzen den emakumeen aurkako indarkeria-kasu bat aztertzeko balio du, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko gizarte-konnotazio ugari ditu, eta indarkeria matxistaren ikuspegi multidiziplinarra ematen du.

39. gomendioa

Online prestakuntza eta zuzenekoa uztartzea. *Online* prestakuntzak denbora optimizatzen du, baina zuzeneko prestakuntzak informazio- eta esperientzia-trukaketa azkar eta sakonagoa ahalbidetzen du, eta itunak eta sareak ezartzea errazten du; beraz, eredu biak uztartzeak prestakuntzaren ahalmena areagotzen du.

Gizarte-zerbitzuen eremuan, emakumeen aurkako indarkeriari buruz HAEEn baitan antolatutako ikastaroak zuzenean baino ez dira eman orain arte.

Poliziaren eremuan, gaur egun, Euskal Herriko Polizia Ikastegia genero-indarkeriari buruzko "online" prestakuntzan ari da lanean, GIBLZren partaidetza eta aholkularitzarekin.

4.2.4. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Oro har ezartzeko protokoloak: 40-46 gomendioak

40. gomendioa

EAEEn indarkeria kontuetan dauden programen eta baliabideen ebaluazioari etxeko tratu txarren edota sexu eraso biktima diren emakumeei laguntzeko baliabide espezializatuen balizko gabeziak ezagutzeko sistema iraunkorra iriztea, ezagutza horretatik baliabideak, arlo guztietan –nagusienak gizarte, justizia, polizia eta osasun arloak izanik–, eskuragarri egon daitezzen ziurtatzeko joka dadin, eta dagoeneko daudenen jarraipenean lan egin dadin.

Honela dio Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 51. Artikuluak, emakumeen aurkako indarkeria aztertzeari buruzkoak:

“2. Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundeak aldi-aldi ebaluatu egingo du zein den Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dauden baliabideen eta programen eraginkortasuna eta irismena. Horretarako, inplikaturik dauden gainerako euskal herri-administrazioek informazioa emango diote euren ardurapean dituzten baliabideei eta programei buruz.

3. Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundeak aurreko paragrafoan aipatutako ebaluazioaren berri emango dio Eusko Legebiltzarrari”.

Ordutik hona, Emakunde honako azterketa hauek egin ditu:

Urtea	Azterketa
2006	Emakumeen kontrako etxeko tratu txarren arloko gizarte-zerbitzuen ebaluazioa
2007	Polizia-baliabideen ebaluazioa, emakumeen aurkako etxeko tratu txarrei dagokienez
2007	Baliabide judizialei eta abokatu-laguntzari buruzko ebaluazioa, emakumeen aurkako etxeko tratu txarren alorrean
2008	Emakumearen aurkako etxeko tratu txarren kasuan laguntzeko osasun-baliabideen ebaluazioa
2008	Baliabide psikologikoei buruzko ebaluazioa, emakumeen aurkako etxeko tratu txarrei dagokienez
2009	Etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen alorreko harrera-baliabideen eraginkortasun-eta irismen-mailaren ebaluazioa
2010	Emakumeen kontrako etxeko tratu txarren arloko gizarte-zerbitzuen ebaluazioa. 2006ko ebaluazioaren eguneratzea
2010	Gizarte-zerbitzuen arloko baliabideen ebaluazioan jarraipena, ebaluazioa eta komunikazio parte-hartzeak egiteko proposamen metodologikoa

Azterketa horiek baliabideen irismena eta eraginkortasuna ebaluatzen dute, eta hobetzeko alderdiak identifikatzen dituzte etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako laguntzan eta profesionalen jardunbidean, modu horretara zerbitzuen kalitatea hobetu ahal izateko.

Gomendio horrekin lotuta, interes berezikoa da emakumeen kontrako etxeko tratu txarren arloko gizarte-zerbitzuen ebaluazioa eguneratzen duen 2010eko agiria; 2006ko ebaluazioan zeuden

gomendioen jarraipenari buruzko ondorioak datoz bertan. 2010ean ere, azterketa horien baitan, gizarte-zerbitzuen arloko baliabideen ebaluazioan jarraipena, ebaluazioa eta komunikazio parte-hartzailea egiteko proposamen metodologikoa egin zen.⁴⁸

Ildo berean, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko baliabideen irismen eta eraginkortasunari buruz Emakundek aldian-aldian egindako ebaluazioak ere bildu ziren, beste iturri batzuekin batera, Erakundeen arteko Hitzarmeneko konpromisoak zenbateraino betetzen diren eta hitzarmen hori erakundeen jardunera zenbateraino egokitzen den diagnostikoa burutzeko agiriaren artean. Erakundeen arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeko Erakunde arteko Talde Teknikoak egin zuen, hain zuzen, diagnosi hori. Batzordeak harrera-baliabideei buruz egindako lana ere jasota geratu da “Etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen alorreko harrera-baliabideen eraginkortasun- eta irismen-mailaren ebaluazioa” delakoaren gogoeta eta gomendioetan (2009).

Azterketa horien bidez, zerbitzuen kalitatea hobetzeko beste modu bat da emaitzen berri ematea; Legeak agintzen duena betez, azterketak Legebiltzarrean aurkezten dira eta, aurkezteko unean komunikabideen bidez egindako hedapenez gain, bilduma interesatu guztien eskura dago Emakunderen webgunean.

Behatokiaren webean ere badaude ebaluazioak, eta BGIBren aldizkariaren bidez ere ematen zaie hedapena ebaluazio horiei. EUDELi dagokionez, Erkidegoko udalei ematen zaie horren guztiaren berri, eta erreferentzia moduan hartzen da erakundearen baitako gogoeta-prozesuetan.

Nolanahi ere, guk dakigula behintzat esparru bakar batean ere ez da egiten azterketa horien emaitzen eta ondorioen jarraipen sistematikorik.

⁴⁸ Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen-txostena eta Ebaluazioa. Erakundeen arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea. Helbide elektronikoa honetan eskuragarri: http://www.emakunde.euskadi.net/u72-preven/es/contenidos/informacion/viol_coordinacion/eu_emakunde/adjuntos/info_sgto_2010_eu.pdf
Emakundeko 2011ko Memoria: <http://www.emakunde.euskadi.net>

41. gomendioa

Etzeko tratu txarren edota sexu-erasoen biktima diren emakumeak lehen unean jaso litzaketen erakundeek eskuragarri dauden baliabideei buruzko informazio homoginoa eta etengabe eguneratua izatea; eta prestakuntza-ekintzak egiteko, dibulgazio-materialak prestatzeko eta haiek etengabe eguneratzeko eta zabaltzeko premia indartzea.

Behatokiaren webgunean [Baliabideen mapa](#) bat dago; emakumeen aurkako indarkeriaren arloan laguntzeko, eta genero-indarkeria jasaten duten emakumeei laguntzeko Bizkaian dagoen baliabide-sareari buruzko informazioa ematen du mapa horrek.

2005ean abiarazi zenetik, tresna hori etengabe eguneratzen da, Lurraldeko administrazioek zerbitzuak berregituratu, itxi edo berriak ireki dituztela jakin ahala.

Mapak zortzi atal ditu, eta Lurraldeko udalerrri bakoitzeko datuak ematen dira horietan, zerbitzu hauei buruz:

- ▣ Emakumeenganako indarkeriaren kontrako zerbitzu espezializatuak: Harrera, Aholkularitza juridikoa, Ofiziozko txanda espezifikoa, Arreta psikologikoa, Familiako esku-hartze espezializatua, Telefono bidezko arreta.
- ▣ Gizarte-arloko baliabideak: Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasun Sailak
- ▣ Polizia-arloko baliabideak: Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren polizia-etxeak
- ▣ Justizia-arloko baliabideak: Guardiako Epaitegia, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Arloko Epaitegia, Biktimari Laguntzeko Zerbitzua.
- ▣ Osasun-arloko baliabideak: Lehen Mailako Arreta, Osasun Mentala, Larrialdiak.
- ▣ Elkartek: Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan diharduten elkarteak. Emakume Elkartek.
- ▣ Berdintasunerako tresnak: Berdintasun-planak, indarkeriaren kontrako planak eta programak, eta tokian tokiko ekimen koordinatuko protokoloak.

Tresnak baliabideen bilatzaile bat du, informazioa errazago eskuratzeko, eta bilaketan emaitza Excel formatuan lor daiteke.

Baliabideen mapa mantentzeaz eta eguneratzeaz gain, erakundeek nahiz elkarteek eskainitako zerbitzu berrien edo daudenen berri ematen du Behatokiak, [BGIB buletinaren](#) bidez. 2009tik hona, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko baliabideen berri emateko artikulu hauek idatzi dira:

- ▣ 14. zk. (2009ko iraila), "Behatokia" sekzioa: Etxean indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko foru-baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak. Bizkaiko Lurralde Historikoa. 2009.
- ▣ 17. zk. (2010eko ekaina), "Behatokia" sekzioa: Etxean indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko foru-baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak. Bizkaiko Lurralde Historikoa. 2010.

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia

- ▣ 18. zk. (2010eko iraila), "Behatokia" sekzioa: Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko baliabideen atlasa. Bizkaiko Lurralde Historikoa. 2010.
- ▣ 20. zk. (2011ko martxoa), "Behatokia" sekzioa: Prebentzio- eta arreta-arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien eskuliburua, 2010.

42. gomendioa

Berdintasun eta emakumeen aurkako indarkeria kontuetan berriazko ezagutzak dauzkaten Gizarte Laneko profesionalak gizarte-zerbitzuetakoak ez diren bestelako eremu instituzionaletan eta biktimengana zuzenean iristeko eremuetan egoteko premia aintzat hartzea.

Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ) Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren mende dago, eta bi gizarte-langile ditu (emakume eta gizon bana). Bizkaian, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegietan dago BLZ, Barakaldon eta Bilbon, baina gizarte-laneko taldea Bilbon bakarrik dago, eta hara jo behar dute premia duten emakumeek.

Osasun-arloari dagokionez, 2009ko azken datuen arabera⁴⁹, Bizkaiko ospitalez kanpoko zentroetan 38 gizarte-laguntzaile daude (%100 emakumeak); eta ospitaleetan 24 (%87,5 emakumeak).

⁴⁹ Iturria: EUSTAT.

43. gomendioa

Koordinazio-tresnak hobetzea, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, laguntzan diharduten erakundeek kasu bakoitzean hartutako neurriei buruzko informazioa bilduko duen; erakundeoi informazio hori partitzen utziko dien; eta arazoaren neurria emango duen estatistika-erabilera ahalbidetuko duen datuen erregistroa sortuz.

Orain arte ez da datuen erregistrorik egin ez lurralde ez erkidego mailan; hau da, ez da kasu bakoitzaren jarraipena egiteko modua eman dezakeen erregistro-sistematik martxan jarri.

44. gomendioa

Sistemaren disfunczioen trataerarako erakundeen arteko koordinazioa egun dauden bideen edo horretarako eraiki litezkeen bidez indartzea, haiek ebaluatzeko proposamena ezartzea aintzat hartuz, haien identifikazioa eta haiek agertzea dakarten eragileen bilaketa, konponbide-proposamena eta biktimentzako laguntza-prozesuan parte hartzen duten eragileen arteko hedapena eraginkorrak eginez.

45. gomendioa

Biktimaren konfidentzialtasuna bermatzea dagokion informazio pertsonala era pribatuan gordez; erakundeek sortzen dituzten eta prozesuan parte hartzen duten txostenen ibilbidea ikertzea, biktima aurkitzeko bidea ematen duten datuak erasotzailearentzat prozesuak iraun bitartean, edo ondoren, eskuragarriak ez direla ziurtatzeko; eta dagokien erakundeek horri buruz adostutako neurrien jarraipena egitea.

Gomendioen txostenaren argitalpena (2009) bat dator protokolo orokor edo sektorialen baitan egiten diren lurraldeko edo erkidegoko koordinazio-bileren motelaldi batekin. **Finkatutako bide** horiek hitzarmenen jarraipen koordinatua egiten dute, gorabeherak eta disfunczioak jorratzen dituzte, zuzentze-neurriak erabakitzen dituzte, edo disfunczio horiek murrizteko proposamenak egiten dituzte. Moteltze horren arrazoia Txosten honen Aurkezpenean aipatutako aldaketa instituzional nabarmena da, 2009an sortu baitzen Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzako Barne Sailaren mende.

2011tik aurrera areagotu da jarduera⁵⁰, eta esku-hartzean, lankidetzan eta erakundeen arteko koordinazioan **hobetu daitezkeen alderdien** berri jakite aldera, Erakundeen arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeari laguntzen dion Erakundeen arteko Talde Teknikoak⁵¹ diagnostikoa egiten du urtean zehar, II. Hitzarmenean hartutako konpromisoak zenbateraino betetzen diren zehazteko, eta egiaztatzeko erakundeen esku-hartzea zenbateraino egokitzen den Hitzarmenean xedatutakora. Horretarako, lau lansaio egin ziren, Hitzarmenaren jarduera-arloen arabera:

- 2011ko irailaren 16a: hezkuntza- eta polizia-arloak
- urriaren 7a: osasun-arloa
- urriaren 7a eta 28a: justizia-arloa
- urriaren 28a eta azaroaren 30a: gizarte-arloa

Diagnostikoa egiteko lan-metodologia eta hortik eratorritako hobekuntza-proposamenak Emakundek egin zituen, eta Teknikari Taldearekin adostu ziren. Diagnostikoaren emaitzak eta hobekuntza-proposamenak Jarraipen Batzordeari aurkeztuko zaizkio 2012ko hasieran.

Atal horren barruan, aipatzekoa da erakundeen arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeko Teknikari Taldearen Laneko Planaren barruan abian jarritako Harrera Baliabideei buruzko

⁵⁰ 2009/02/03: Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko Erakundeen arteko II. Hitzarmena sinatu zen; 2010/11/18: Hitzarmenaren Jarraipen Batzordean izendatu zen hari laguntzeko Erakundeen arteko Teknikari Taldea; 2011/02/25: Erakundeen arteko Teknikari Taldea eratu zen; 2011/04/13: Teknikari Taldeak urteko lan-proposamena egin zuen; 2011/05/02: Jarraipen Batzordeak Teknikari Taldearen lan-proposamena onartu zuen. Informazioa handitzeko Emakundeko 2011ko Memoria kontsultatu: <http://www.emakunde.euskadi.net>

⁵¹ Ikusi 29. oin-oharra.

Lantaldearen⁵² helburuen artean dagoela baliabide horien anonimotasuna bermatzeko neurriak finkatzea (datu-bilketa, errolda, etab.).

⁵² Ikusi 9. gomendioari buruzko testua Txosten honetan (27-28. or.).

46. gomendioa

Elkarrizketa- edo koordinazio-mahaietan biktima taldeak aintzat hartzea, edo sistemaren funtzionaltasunari buruz daukaten ezagutza ezagutzea, baloratzea eta erabiltzea ahalbidetuko duten mekanismoak bideratzea, protokoloetan jasotako esku-hartzeen eraginkortasuna egokitzeko eta hobetzeko elementu bezala.

EAEEn erakundeen arteko koordinaziorako finkatutako bideetan ez da ageri biktima taldeek zuzenean parte hartzea. Euren ekarpenak zeharka jasotzen dira Emakundek aldizka egiten dituen biktimentzako laguntza-zerbitzuen ebaluazio-ikerketetan; horretaz gainera, gomendio hori dela eta, aipagarria da biktimei zuzenean laguntzen dieten elkarteez duten parte-hartzea erakundeen arteko foroetan; adibidez, Behatoki honetako partaide dira Argitan, Auzolan eta Sim Romi elkarteak; lehen biak Adierazleen Lantaldean ere badaude, eta eskarmentu handia dute indarkeria jasaten duten emakumeei zuzenean laguntzen.

Ilido berean, aipatzekoa da emakume etorkinenganako genero-indarkeria aztertzeko Lantaldean esparru horretako elkarte esanguratsuenek duten parte-hartzea. Lantalde hori GIBLZk jarri zuen martxan, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Immigrazio Zuzendaritzarekin batera. Talde horrek laneko dokumentu bat egin du, genero-indarkeria jasaten duten EAEko emakume etorkinen prebentzio eta laguntza arloko diagnostikoa zabaltzearren, bai eta ekintzak bideratzearren ere, eta gomendioak prestatu dira emakume horiei laguntzen dieten langileentzat.

GIBLZren lan-arloarekin jarraituz, behartutako prostituzioaren eta emakume-salerosketaren biktima direnen beharrak aztertze aldera, biktimei zuzenean laguntzen dieten elkarteek hartzen dute parte Lantaldean. Talde horren jardueraren baitan, sexu-esplotaziorako giza salerosketaren biktima direnei laguntzeko bi koordinazio-protokolo egin dira, egoera erregularrean nahiz irregularrean daudenezat, eta erakundeek hobeto funtzionatzeko modua finkatu da, emakume horiek bi aldiz biktimizatuak izan ez daitezen, eta laguntza eta babes egokiak izan ditzaten; sexu-esplotaziorako emakume-salerosketari buruzko jardunaldi bat ere egin zen 2011ko maiatzaren 16an, Gasteizen.

Tokian-tokian ezartzeko protokoloak: 47-50 gomendioak

47. gomendioa

Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea (62. art.) betez, tokiko erakundeek euren lurralde-esparruan, esparru orokorreko hitzarmenak eta protokoloak garatu, zehaztu eta euren errealitateetara egokituko dituzten elkarlan-hitzarmenak eta jokabide-protokoloak hartzea sustatzea.

Behatoki honek jakindako datuen arabera, azken urteotan, Bizkaiko Lurralde Historikoan gero eta tokiko erakunde gehiagok abiarazi dute tokiko koordinazio-prozesu bat, euren errealitateara egokitu nahian erakundeen arteko Hitzarmenaren eduki orokorra.

2011ko ekainean, 17 udalerrik eta bi mankomunitatek (gizarte-zerbitzu mankomunitateekin) amaiturik edo bideraturik zuten protokoloa. Udalaz gaineko hitzarmenen beste bi kasu ere egon ziren; Lurraldeko sei udalerrri bildu ziren hitzarmen horietara. Entitate horien multzoak **Bizkaiko biztanleriaren %82,7** jasotzen du.

Tokiko koordinazio-protokoloa amaiturik edo bideraturik duten entitateak. BLH. 2011ko ekaina.

Udalerrriak

-Abanto Zierbena	-Ermua	-Muskiz
-Zornotza	-Galdakao	-Ondarroa
-Balmaseda	-Getxo	-Ortuella
-Barakaldo	-Leioa	-Portugalete
-Basauri	-Lekeitio	-Santurtzi
-Bilbo	-Mungia	-Urduña

Mankomunitateak*

-Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	-Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitatea
--	--

Bestelakoak (udalaz gaineko hitzarmenak)

-Gordexola eta Zalla	-Abadiño, Berriz, Durango eta Elorrio
----------------------	---------------------------------------

Iturria: Geuk egina, BLHko udalerrien eta mankomunitateen datuekin.

*Gizarte-zerbitzu mankomunitateak dituzten entitateak

48. gomendioa

EUDELek Emakunderen laguntzaz prestatutako *Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko tokiko protokoloak eta neurriak hartzeko jarraibide-gida* erreferentzia hartzea tokiko esparruko protokoloak prestatzen laguntzeko.

“Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko tokiko protokoloak eta neurriak hartzeko jarraibide-gida” erreferentzia da EAEn, tokiko koordinazio-prozesuak egiteko.

Paperean argitaratutako aleak agortu ostean, EUDELek euskarri digitalean eskaintzen du gida hori, eta bere webgunean ere kontsulta eta deskarga daiteke⁵³, bai eta Emakunderenean ere.

Behatokiak ere Gida hori hedatzen laguntzen du, bere webgunean ostataturik.

⁵³ <http://www.eudel.net/aNG/web/eus/gaur/gaur/Gida.jsp>

49. gomendioa

EAEEn tokiko protokoloen prestaketa bultzatzeko eta laguntzeko ezarritako lan-ildoak (Berdinsarearen baitako lan-batzordeak, helburu horretarako tresnen prestaketa eta hedapena) jarraikortasuna ematea; eta abian dauden prozesuen jarraipena bizkortzea arlo horretan lortutako aurrerapenak ezagutzeko.

Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako Berdinsarea- Euskadiko Udalen Elkartearen baitan, etengabeko lana da tokiko protokoloak bultzatzea EAEko udalerrri edota mankomunitateetan. Sarearen barruko lan-guneen artean, **Berdinlan Protokoloak Batzordearen** helburua da etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntzeko **tokiko protokoloak bultzatzea**, erakundeen arteko II. Hitzarmenaren bidetik, bai eta **horiek gauzaten eta ezartzen laguntzea** ere. Urtean zehar egindako lana egitean, Batzordean parte hartzen duten udalerriek aurrez adostutako gaiak lantzen dira.

Era berean, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak (Eusko Jaurlaritzaren Barne Saila) protokoloak egitea eta haiek ikuskatzea sustatzen du; aurrez egindako protokoloak aztertzen ditu eta horien txostenak egiten ditu udalerrien eskariz; eta **Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko koordinazio-ekintzak** bultzatzen ditu⁵⁴, tokiko koordinazio-batzordeek onar ditzaten (Ertzaintzarekin eta Udaltzaingoarekiko Koordinazio Zuzendaritzarekin koordinaturik).

Arlo horretan egindako aurrerapen berri jakite aldera abiarazitako prozesuen jarraipenari dagokionez, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan EAEEn dauden baliabideen eta programen eraginkortasunaz eta irismenez Emakunde egiten dituen aldizkako ebaluazioen baitan, 2012ko ekitaldian **tokiko koordinazio-protokoloak ikertuko dira**.

⁵⁴ Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko koordinazio-ekintzei buruzko informazioa zabaltzeko, dokumentu hau kontsulta daiteke: "Genero-indarkeriaren emakume biktimek EAEEn. 2010", helbide elektronikoa honetan eskuragarri: http://www.interior.ejgv.euskadi.net/r42-avvg001/eu/contenidos/informacion/avvg_informes/eu_informes/adjuntos/Mujeres%20violencia%20genero_2010%20%28EUSK%29_v05.pdf

50. gomendioa

Erakundeen arteko Hitzarmena sinatu duten autonomia-esparruko erakundeek parte hartzeko daukaten engaiamenduaren, eta erakunde horiek eurek tokiko protokoloak prestatzeko prozesuetan daukaten engaiamenduaren arteko elkarrekikotasuna ezartzea, batez ere Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari atxikitako Osakidetzari dagokionez.

2011tik hona, Berdinlan Protokoloak Batzordeak Berdinsarearen barrutik bultzatzen ditu etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntzeko tokiko protokoloak – Erakundeen arteko II. Hitzarmenetik eratorriak–, bai eta horiek gauzatzen eta ezartzen laguntzea ere, eta Osakidetzarekin ere lan egiten du, udalen eta osasun-arloaren arteko koordinazioa hobetearren, eta aztertzen ari da **udalerrien eta osasun-zerbitzuen arteko protokolo bakar bat** ezartzea, etxeko tratu txarrak edo sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeentzat.

Behatokiaren jarduera: 51-53 gomendioak

51. gomendioa

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia osatzen duten erakundeek haren eta haren jokabide-esparruan paratutako tresnen hedapena bizkortzea, hala nola Baliabide Maparena, lurralde mailan eskuragarri dauden baliabideei buruzko agiri homogeneoa eta Lurraldean indarkeriaren biktima diren emakumeen laguntzan diharduten erakundeen zerbitzurako lan-tresna erabilgarria baita.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Berdintasunerako Zuzendaritzak “Genero-indarkeriako egoerei emandako laguntzaren zenbakiak Bizkaiko Lurralde Historikoan. Gizarte-, polizia- eta justizia-arloko laguntza. 2010” txostena argitaratu du **Berdintasuna Komunikazio Buletinaren** 31. zenbakian (2011ko azken zenbakia).

EUDEL- Euskadiko Udalen Elkarteak bere barruko udalerriei bidaltzen dizkie BGIB Buletinaren argitalpenak, posta elektronikoz.

Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak (Eusko Jaurlaritzaren Barne Saila) erkidego mailako Baliabideen Mapa ezagutarazteko ekimen puntualak egin ditu.

52. gomendioa

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren prestutasuna ziurtatzea, dauzkan baliabideen bitartez, berdintasun eta emakumeen aurkako indarkeria kontuetako protokoloen eta koordinazio-ekimeneen ezarpenari buruzko informazioaren hedapena bizkortzeko.

Behatokiak tokiko koordinazio-protokoloari buruzko informazioa jasotzen du, urtero egiten baita datu-bilketa, Bizkaiko udalerrri eta mankomunitateetan zer baliabide dauden jakiteko. Informazio hori webguneko Baliabideen Atlasaren bidez zabaltzen da, eta bertan ikusten da berdintasunerako politika aktiboen ezarpen-maila, bai eta emakumeen aurkako indarkeriari erantzuteko baliabideen funtzionamendua ere; Baliabideen Mapak, berriz, eskura jartzen ditu **protokolo horietan jasotako agiriak, zerkusia duten entitateek zabaltze-lana egin nahi** dutenean.

Baliabideen Atlas urtero eguneratzen da, eta Mapa etengabe eguneratzen da.

53. gomendioa

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren prestutasuna adieraztea bere baitan, elkarteen eta erakundeen eremuetako ordezkarien topaketaren ondorioz, laguntza-sarearen funtzionaltasunari eta indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntzarako ezarritako koordinazio-prozedurei buruz sortutako hausnarketei forma emateko; eta hausnarketok dagokion organoari helaraztea.

Behatokiaren helburuen artean dago erakunde publikoetatik genero-indarkeriaren arloan eskaintzen diren zerbitzuak eta prestazioak hobetzeko gomendioak eta proposamenak egitea. Helburu hori betetze aldera, 2008an idatzi zen “Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan erakundeen jarduna hobetzeko gomendioak eta proposamenak, Bizkaiko Lurralde Historikoan” agiria, 2009an argitaratua, eta haren jarraipena jasotzen du Txosten honek.

Barne-mailako lansaioen bidez, erakundeen eta elkarteen arloko entitateek ikuspuntu desberdinak konparatzen dituzte, oharrak egiten dituzte eta hobeto ezagutzen dute laguntza-sareko beste baliabide batzuen funtzionamendua, edo koordinazio-hitzarmenen aplikazioa.

5. ONDORIOAK

Hona hemen, ondorio moduan, BGIBren gomendioen ildotik identifikatu diren jarduera-lerro nagusiei buruzko gogoeta batzuk:

Prebentzioaren arloko gomendioak

Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduerari dagokionez, oso ona da erakundearen **egitura indartzea, genero-ikuspegia integratzen jarraitzeko**, maila politikoan nahiz teknikoan. Azpimarratzekoa da Berdintasunerako Batzorde Teknikoek egindako lana, batez ere emakumeen aurkako indarkeria agerian jar dezaten **entitateko alor guztiek**, sail bakoitzaren eskumenak gaindituz. Lan horren emaitza gisa, orain bertan egiteko bidean den IV. Foru Planak Emakumeen aurkako Indarkeriaren Ardatza sendotuko du, arlo horretako ekimenak proposatuz entitateko sail guztiei.

Komenigarria da emakumeen aurkako indarkeriaren gaia **indartzea** Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foroko jardueretan, eta gune horretan diharduten elkarteetan sentsibilizazio-eta informazio-ekimenak egiteak gizarte osoan izan dezaketen **efektu biderkatzailea aprobetxatzea**.

Ona da BGIBk **hedabideetan eta publizitatean** proiektatutako irudian genero-ikuspegiaren integrazioa sendotzeko egiten diren ekimenen eta tresnen berri **aldian-aldian ematea**, bai eta berdintasunaren arloan eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan eta **hezkuntzaren esparruan** abiatutako ekimenen berri ematea ere.

Ona da “Prebentzio- eta arreta-arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien II. eskuliburua” (2010) idatzi eta zabaldu izana, eta beharrezkotzat hartzen da jokabide onak **areago** jakinaraztea. Horretarako, egokia litzateke **tarte berezi bat eskaintzea BGIB Buletinean**.

Interesgarritzat hartzen da sentsibilizatzeko eta indarkeria jasaten duten emakumeentzat **laguntza-sareak sortzeko** ekimenak egitea, horrelako egoerak ezagutu eta laguntza eskaintzeko gai izan daitezen. Ildo horretan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailak gomendio horrekin lotutako programa berri bat ezarri du 2011n: Bitartekari Sozialen Sare bat, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak hautemateko eta orientatzeko.

Laguntzaren arloko gomendioak

Zerbitzuen hobekuntza

Harrera-baliabideen sare bat abiarazteari dagokionez, Erakundeen arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen baitan Harrera Baliabideen Lantaldea eratzea eta lanean jartzea tresna

ezin hobea da etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako **harrera-zerbitzuak sarean antola daitezkeen** ikusteko. Nolanahi ere, gai horri dagokionez, kontuan hartu beharko da gizarte-zerbitzuen euskal sistemako **prestazioen eta zerbitzuen dekretua** zertan geratzen den.

Gure ustez, gainera, Talde hori eratzeak eta lanean hasteak aukera ematen du harrera-baliabideen arloan emakumeek dituzten premiak araberako ekimenak aztertzeko eta bultzatzeko, hala nola oraindik egiteke dagoen **Zentroa sortzea eta martxan jartzea emakumeentzat eta haien kargura dauden senideentzat, denetariko gizarte-arazoei lotutako premia bereziak dituztenentzat.**

Ona da Bizkaiko Foru Aldundiak **Laguntza Psikologikoaren Zerbitzua deszentralizatzea** lurraldean zehar, baliabide espezializatu hori eskurago jartzeko.

Lurraldeko udalerrriak eta mankomunitateak **oro har gai dira** indarkeria jasaten duten emakumeei laguntza-zerbitzuak eskaintzeko, edo baliabide espezializatuagoetara bideratzeko; dena dela, beharrezkoa da **udal-baliabideak hobetzea eta indartzea**, indarkeria jasaten duten emakumeentzako laguntza-sistemaren barruan.

Ez da ekimenik egon prozedurei eta tresnei buruz erabiltzaileek eta profesionalak duten gogobetetze-maila jakiteko, modu homogeenan. Neurri horrek **ekintza koordinatua** eskatzen duenez, eta Erakundeen arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak EAEn duen garrantzia ikusirik, Batzorde horren **Gizarte Zerbitzuen Azpibatzordea** ezin egokiagoa da ildo horretako ekimenak aintzat hartzeko.

Datuak lortzeko lana hobetzea

Ez da ekimenik egin Erakundeen arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordean adostutako Terminologiari buruzko Proposamena indartzeko, hobetzeko, erabilera eta garapena aztertzeko, edo berrikusteko. Horretaz gainera, kontuan hartu behar da erakunde-esparru berriak **erreferentziako termino berriak sortu dituela**. "Terminologiari buruzko proposamena" izeneko dokumentua sortzeko adostasuna lehen urratsa izan zen **harmonia terminologikoaren esparru bateratu bat egiten jarraitzeko**, lehen ekimen hori berrikusiz eta gogoeta berriak txertatuz, fenomenoaren **ulermena** argitze eta errazte aldera laguntza-zerbitzuetako langileen artean.

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen arloko datuak biltzeko erduei dagokienez –Erakundeen arteko Jarraipen Batzordean adostuak–, komenigarria da tresna horien benetako aplikazioa ezagutzea, eta gizarte-zerbitzuen lan-dinamikarako egokiak diren ikustea; beraz, interesgarria da gizarte-zerbitzuen arloan informazioa biltzeko eredu horien **eraginkortasunaren berri jakitea**, eta arlo horretako datu-bilketa **hobetzeko** neurriak hartzea; eta datuok **sistematikoki ustiatzea**.

Bizkaiko udalek eta mankomunitateek BGIBk zentralizatutako "Lurraldeko datuak biltzeko fitxa" erabiltzeari dagokionez, oso ona da eta erakunde horien **erantzuteko gaitasuna** azpimarratzen da, eta profesional berriemaileek euren lan-dinamikan datu-bilketa txertatzeko eginiko **ahalegina**, era horretan Behatokiak eguneratu ahal izan dezan Lurraldeko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ezagutza.

Lehen, BGIBk urtean behin biltzen zituen datuak; orain, **sei hilean behin**. 2010ean eta 2011n prozesu bana burutu da eta, ondorioz, **bananako txostenak** egin dira udalerrri eta mankomunitateentzat, bakoitzaren laguntza-baliabideak azalduz.

Behatokiaren ahalegin nagusia izan da **tokiko erakundeetako gizarte-programen datuak hobeto biltzea**. Horregatik, informazio-iturrien artean ez da gehitu Udaltzaingoa (baina, Eusko Jaurlaritzako Barne Sailaren lankidetzari esker, Ertzaintzaren jarduerari buruzko informazio gehiago eskuratu da, udalerriz udalerrri xehakaturata). Eta elkarteetako informazioa ere ez da gehitu (zenbaitetan, elkarteek udal-baliabideen barruan eskaintzen dute zerbitzua, eta euren esku-hartzea hor geratzen da jasota, hein batean).

Profesionalentzako prestakuntza

Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan profesionali emandako prestakuntza **heterogeneoa** da, ez baitago erreferentzia-esparru bateraturik prestakuntza-premiez, helburuez, eman beharreko edukiez, erabiltzeko materialez, etab. Prestakuntza-ildo bateraturik ezean, erakunde bakoitzaren esku geratzen da hori zehaztea eta, prestakuntza-ekimenak egiteko ahalegina azpimarratzekoa den arren, hobe litzateke **prestakuntza-baldintzak homogeneizatzea** (ordu-kopurua, edukiak, ebaluazioa...), kasu guztietan kalitatezkoa eta egokia izan dadin.

Erakundeen arteko koordinazioa

EAEko erakunde-aldaketaren ondorioz (2009), motelaldi bat egon da protokolo orokor edo sektorialen baitan egiten diren lurraldeko edo erkidegoko **koordinazio-bileretan**. **Finkatutako bide** horiek hitzarmenen jarraipen koordinatua egiten dute, **gorabeherak eta disfuntzioak** jorratzen dituzte, zuzentze-neurriak erabakitzen dituzte, edo disfuntzio horiek murrizteko proposamenak egiten dituzte. Hori kaltegarria izan da erakundeen arteko koordinazio-lanentzat, finkatutako foroen bidez egin izan direnak, denbora askoan egon baitira geldirik.

2011tik aurrera areagotu da jarduera, eta esku-hartzean, lankidetzan eta erakundeen arteko koordinazioan **hobetu daitezkeen alderdien berri jakite aldera**, Erakundeen arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeari laguntzen dion erakundeen arteko Talde Teknikoak **diagnostikoa** egin du urtean zehar, II. Akordioan hartutako **konpromisoak zenbateraino**

betetzen diren zehazteko, eta egiaztatzeko **zenbateraino egokitzen den erakundeen esku-hartzea Hitzarmenean xedatutakora.**

Orain arte ez da egon, ez lurralde ez autonomia mailan, indarkeria jasaten duten emakumeei laguntzen dieten erakundeek hartutako neurriei buruzko informazioa biltzen duen datu-erregistro bat sortzeko ekimenik, kasuen banan-banako jarraipena egiteko modua ematen duenik.

Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako Berdinsarea-Euskadiko Udalen Elkarateak etengabe bultzatzen ditu tokiko protokoloak EAEko udalerrri edota mankomunitateetan, hain zuzen ere **Berdinlan Protokoloak Batzordearen** bidez. Batzorde horren helburua da etxeko tratatu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntzeko **tokiko protokoloak bultzatzea**, Erakundeen arteko II. Hitzarmenetik eratorriak, bai eta **horiek gauzatzen eta ezartzen laguntzea** ere.

Autonomia mailako Erakundeen arteko II. Hitzarmena sinatu duten erakundeen parte hartzeko konpromisoa bat etor dadin erakunde horiek tokiko protokoloetan duten inplikazioarekin, nabarmentzekoa da Berdinsareak osasun-arloan egindako lana **Osakidetzarekin**; bai eta GIBLZk egindako lana ere, **Ertzaintzaren eta Udaltzaingoareen arteko koordinazio-ekimenak** bultzatzen.

Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan EAEn dauden baliabideen eta programen eraginkortasunaz eta irismenez Emakundek egiten dituen aldizkako ebaluazioen baitan, 2012ko ekitaldian **tokiko koordinazio-protokoloak** ikertuko dira.

Bizkaian **gero eta tokiko erakunde gehiagok** abiarazi dute tokiko koordinazio-prozesu bat, euren errealitatera egokitu nahian erakundeen arteko Hitzarmenaren eduki orokorra; 2011ko lehen seihilekoaren datuen arabera, erakunde horiek Lurraldeko biztanleriaren **%82,7** ziren.

1. ERANSKINA

AKRONIMOEN ZERRENDA:

EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa.

BFA: Bizkaiko Foru Aldundia.

GIBLZ: Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza.

EJ: Eusko Jaurlaritza.

HAEE: Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea.

BGIB: Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia.

BLH: Bizkaiko Lurralde Historikoa.